

# KOIUNTURAZ

76. zkia. – 3. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

**<http://www.euskadi.net/ekonomia>**

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[ekonomia@ej-gv.es](mailto:ekonomia@ej-gv.es)

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

## AURKIBIDEA


LABURPENA .....	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua .....	7
Ekoizpena eta eskaria.....	12
Ekoizpen jarduera .....	14
Eskariaren osagaiak .....	17
Kanpo saldoa .....	19
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak .....	30
Prezioak .....	30
Lan kostuak eta soldatak .....	34
Arlo publikoa.....	36
Finantza arloa .....	39
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak .....	45
EAErako aurreikuspenak .....	52



## LABURPENA

2011ko bigarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak aurreko urteko erdialdetik erakusten zuen hazkunde ahulari jarraipena eman zion eta barne produktu gordina (BPG) %0,8 areagotu zuen urte arteko tasan, hots, urte hasieran baino hamarren bat gutxiago, baina 2010eko bigarren seiuhilekoan jaso zuen balioa berdinduz. Beraz, maila apaleko hazkunde egonkorra eskaintzen du. Oro har, zailtasunak hautematen dira barne eskaria indarra har dadin eta horren ondorioz EAEko ekonomiak jasotzen duen bultzadaren zati handi bat kanpo arlotik iristen da. Hala eta guztiz ere, EAEko enpresen merkataritzarako bazkide nagusiak gehikuntza tasa apaltzeko fase garbi batean daude murgilduta eta horrek eragin handia izan dezake kanpo arlotik hazteko gaur eguneko eremuan.

### EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Aipatu den moteltzeko joera hori munduko ekonomia osoan gauzatu da eta 2010ean lortu zuen urteko hazkundea (%5,0) serie historikoaren daturik gorenera (2007ko %5,4) hurbildu ondoren, urtebete bat darama erritmoa moteltzen, une hauetan %3,5aren apur bat gorago dagoela. Bizitasunaren galera herrialde garatuetan zein garatzeko bidean daudenetan gauzatu da. Izan ere, Txinak, Indiak, Brasilek eta Errusiak osatzen duten taldea 2010eko lehen

hiruhilekoan %10,7ko tasa lortzetik gaur eguneko %7,8ra igaro da. Aipatu diren lau herrialde horietatik, Txina eta India dira bilakaera egonkorrena izan dutena, hurrenez hurren %9,5 eta %8,5 hazi baitira. Beste bi herrialdeek, eta bereziki Brasilek, moteltzeko joera garbia erakusten dute, nahiz eta beren urte arteko hazkundeak oraindik sendoak diren. Asiako beste ekonomia batzuek neurriak hartu dituzte hazkunde erritmoa gutxitzeko eta ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko.

### Munduko ekonomia. BPGren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, The Economist eta Eurostaten datuak erabilia.

Moteltzeko joera begi bistakoa da herrialde garatuetan ere. Japonia (%-1,1) alde batera utzita, martxoan herrialdea suntsitu zuten natur hondamendiek kaltetuta baitago, ekonomia aurreratu nagusi guztiek aurrekoak baino urte arteko gehikuntza tasa txikiagoak jaso zituzten. Adierazi behar da Erresuma Batuak, Italiak eta Espainiak %1aren azpiko hazkunde tasak izan zituztela eta ez AEBak ez Frantzia ez zirela %2ra iritsi. Alemaniak bakarrik eskaintzen du hazkunde garrantzitsu bat (%2,8), nahiz eta aurreko lau hiruhilekoetan lortutakoak baino askoz ere txikiagoa den.

### BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011	
			III	IV	I	II
Europar Batasuna 27	-4,3	1,8	2,3	2,1	2,4	1,7
- EAE	-3,9	0,3	0,8	0,8	0,9	0,8
- Espainia	-3,7	-0,1	0,2	0,6	0,9	0,7
- Alemania	-5,1	3,7	4,0	3,8	4,6	2,8
- Frantzia	-2,7	1,5	1,6	1,4	2,1	1,6
- Italia	-5,2	1,3	1,4	1,5	1,0	0,8
- Erresuma Batua	-4,9	1,4	2,5	1,5	1,6	0,7
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	-3,5	3,0	3,5	3,1	2,2	1,6
Japonia	-6,3	4,0	4,8	2,5	-0,7	-0,9
Txina	9,2	10,3	9,6	9,8	9,7	9,5
India	6,8	10,1	9,1	9,2	7,7	8,5
Errusia	-7,8	4,0	2,7	5,0	4,1	3,4
Brasil	-0,6	7,5	6,7	5,0	4,2	3,1


Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Munduko ekonomiaren erritmoa motelduenez, petrolioaren salneurriak 2008ko amaieratik izan zuen goranzko joera galgatu da. Hain zuzen ere, urte hartako abenduan Brent motako upelak balio zituen 30 euroetatik (40 dolar) lehengai horren salneurria 85,6 euroetara (123 dolar) garestitu zen apirilean eta munduko ekonomiaren hazkundera zein krisitik irteteko bidean atzeratuago zeuden herrialdeen susperraldia zailagoa egiteko mehatxua egin zuen. Hala ere, hainbat ekonomiarako hazkunde aurreikuspenak beherantz zuzendu izanak merkatu horretan bizi ziren tentsioak baretu ditu eta petrolioaren prezioa 81,9 eurora (113 dolar) jaitsi zen iraileko batez bestekoan. Beste aldetik, bai AEBetan, gehieneko gastuaren negoziatioarekin, bai Europan, zor subiranoaren krisiarekin, sortu diren arazo instituzionalek sei hilabetez 1,43 dolarren inguruko urkila estu batean utzi dute euroaren truke tasa, 2010eko

amaieratik Europako diruak erakutsi zuen balioa irabazteko joera bertan behera geratu zen. Egonkortasun hori balio galera bihurtu da irailean eta europar dibisaren balioa dolarrarekiko 1,38 dolarretara iritsi da.

### Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Ekonomia garatuek eta garapen bidean dauden herrialdeek bizi duten erritmoa moteltzeko testuinguru horretan, EAeko ekonomiak aurtengo bigarren hiruhilekoan %0,8 areagotu zuen bere barne produktu gordina urte arteko tasan. Emaitza hori lehen hiruhilabetekoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da, baina 2010eko bigarren sei hilekoan jaso ziren balioak berdindu ditu, bere gehikuntza erritmoa egonkorra eta apala dela agerian utziz. Hazkunde horren zati handi bat kanpo eskariak eragin zuen, BPG hazi zen zortzi hamarretatik sei eremu horrek ekarri zituelako. Hala ere, bai esportazioetan bai inportazioetan tonu galera garrantzitsua hauteman zen. Aitzitik, barne eskariak zailtasun handiak ditu bere emaitzak hobetzeko.

Barne eskarian, azpimarratzekoa da kontsumo pribatuaren ahultasuna (%0,3), baina gogoratu behar da hiruhilabeteko datu hori 2010eko bigarren hiruhilabeteko emaitzarekin alderatzen dela eta garai hartan erosketak aurreratzeko erabakiak hartu zirela, BEZaren uztailleko igoera saihesteko. Dena dela, lan merkatuaren ahultasunak, aurtengo lehen hilabeteetako inflazio tasa altuak, kontsumitzaileen konfiantza faltak eta kontsumorako kreditu bat lortzeko dauden zailtasunek osagai hori gehiago suspertzea eragozten dute. Kontsumo publikoak, berriz,

%1,3an utzi zuen berriro bere hazkunde erritmoa, defizit publikoa gutxitzeko administrazioak neurriak hartu zituen arren. Azkenik, kapitaleko eraketa gordinak hobekuntzarako norabideari jarraipena eman zion, baina oraindik balio positiboak berreskuratu gabe. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren hobekuntza ez da nahiko izan eraikuntzan eginiko inbertsiorik eza konpentsatzeko eta agregatua %-1,0an kokatu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, bizitasun handiena industriatik iritsi zen berriro (%3,3), baina lau hamarrenetan gutxitu zuen aurreko hiruhilabeteko emaitza, Europako gainontzeko ekonomietan ere hauteman zen portaerarekin bat eginez. Zerbitzuen emaitza (%1,0) azpimarratu behar da, aurreko datua bi hamarrenetan hobetu zuelako eta balio hori oso handia ez bada ere, aurreko zortzi hiruhilekoetako zenbatekoak gainditu zituen. Datu negatiboena eraikuntzan aurkitu zen berriro (%-5,6). Arlo horrek ez du suspertzeko zantzurik erakusten, etxegintzan mugimendurik ez dagoelako eta inbertsio publikoak behera egin duelako. Aurreko guztiaren ondorioz, balio erantsi gordina %0,9 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Ekoizkinen gaineko zerga garbiak, berriz, puntu erdi bat jaitsi ziren.

Enpleguak pauso bat eman zuen atzera eta lau hamarreneko jaitsiera izan zuen urte arteko tasan, eraikuntzaren narriadura areagotu zelako eta zerbitzuek lanpostu gutxiago sortu zituztelako. Ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaera horien ondorioz, produktibitatearen igoera puntu batekoa baino zertxobait gehiagokoa izan zen, aurreko balioekin bat eginda. Beste aldetik, langabezia tasa zertxobait igo zen eta %10,9an kokatu. Tasa hori Espainiako batez bestekoa (%20,9) baino askoz beherago dago, baina puntu batean gainditzen du Euroguneko batez besteko tasa (%9,9). Azkenik, kontsumoko prezioak maila altu samarretan mantendu ziren. Hala ere, apiriletik aurrera apaltzeko joera erakutsi dute eta abuztuan KPIren indize orokorra %2,8ra jaitsi zen eta azpiko inflazioa, berriz, %1,6ra.

#### EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	-3,9	0,3	0,4	0,8	0,8	0,9	0,8
Enplegua	-3,5	-0,9	-0,7	-0,2	-0,5	-0,1	-0,4
Ekoizkortasun irabaziak	-0,4	1,2	1,2	1,0	1,3	1,0	1,1
Langabezia tasa	8,1	9,2	9,1	8,8	10,0	10,7	10,9
Kontsumoko prezioen indizea	0,3	1,7	1,5	1,9	2,4	3,4	3,4

Iturria: Eustat eta INE.

Datozen hiruhilekoei begira, nazioarteko erakundeen aurreikuspenak ez dira oso baikorrak eta haietako gehienek beherantz berrikusi dituzte aurreko estimazioak. Munduko ekonomiaren moteltzea, ekonomia eragileek konfiantza galdu izana, finantza sisteman sortu diren tentsioak, zor subiranoaz agertu diren zalantzak, eta abar, 2011ko amaierarako eta 2012 osorako espero den hazkunde erritmoa apalagoa izango dela pentsatzeko arrazoietako batzuk dira. EAEko ekonomiari dagokionez, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspen berrietuek iragartzen dute aurreko hiruhilabeteetako hazkunde ahulak jarraituko duela eta 2011. urterako batez besteko gehikuntza %0,8an kokatzen dute, hurrengo urtean %1,4ra areagotu arte.

### EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENAK 2011RAKO ETA 2012RAKO

Urte arteko aldakuntza tasak	2011		2012				2011	2012
	III	IV	I	II	III	IV		
BPG erreala	0,7	0,8	1,1	1,2	1,6	1,7	<b>0,8</b>	<b>1,4</b>
BPGren deflatorea	1,8	2,0	2,0	2,2	2,2	2,3	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>
Enplegua	-0,7	-0,3	-0,1	0,0	0,5	0,7	<b>-0,4</b>	<b>0,3</b>
Langabezia tasa	11,1	11,1	11,3	11,3	10,7	10,0	<b>11,0</b>	<b>10,8</b>

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Oro har, ez da aldakuntzarik espero hazkundearen osieran eta kanpo eskaria izango da BPGren aurtengo hazkundearen erantzule ia bakarra. Aitzitik, 2012. urtean barne eta kanpo eskariaren arteko banaketa orekatuagoa izango da. Barne eskariaren suspertzea kontsumo pribatua oinarrituko da, enplegu garbia galtzeko fasea amaitu ondoren (2012ko lehen sei hilekoan gertatuko dela espero da) bere emaitzak hobetuko dituelako. Orobat, kapitaleko eraketa gordinak atzean utziko ditu aurreko beherakadak eta hazkunde tasa positiboak berreskuratuko ditu, txikiak izango badira ere.

Eskaintzaren aldetik, bultzada hiru elementutatik iritsiko da: industriatik, zertxobait gehiago haziko baita, zerbitzuen hobekuntzatik, eta eraikuntzaren jaitsiera leunago batetik, aurrekusi den epealdi osoan balio positiboak berreskuratzea lortuko ez badu ere. BPGren deflatoreak portaera neurritsua izango du datozen hiruhilekoetan eta zertxobait igoko da barne eskaria suspertuko denean, %2,2an kokatu arte. Azkenik, langabezia tasak oraingoak baino balio altuagoak izango ditu, baina 2012ko bigarren hiruhilekoan joera aldatuko dela espero da, %10,0ra jaitsi arte.


## EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

### EAEko ekonomiaren testuingurua


2011ko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiaren jarduerak hedatzen jarraitu zuen, baina hazkunde erritmoak moteltzera egin zuen. Lehengaien prezio altuek, Eurogunean zor subiranoaren krisia areagotu izanak, finantza merkatu guztietan oso eragin garrantzitsua izan baitzuen, eta ekonomia askoko balantzeak onbideratzeko beharrak kalte egin zizkieten ekonomia aurreratuei eta, kasu batzuetan, moteltzeko joera bizia hauteman zen herrialde horietan.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina  
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Japoniak pairatu zuen lurrikara handiaren ondorioz ekoizpen kateetan gertatu ziren etenek, lehengaien prezio altuek eta inflazioaren presio handiagoez garapen bidean dauden herrialdeetako hazkunde erritmoa ere kaltetu zuten. Hala ere, ekonomi horietako egoera ona zenez eta aurreko hazkunde tasak altuak zirenez, azken hiruhilabeteko gehikuntza tasak sendoak eta garrantzitsuak izan ziren berriro. Oro har, industriaren ekoizpena eta esportazioak aurreko hiruhilekoan baino gutxiago hazi ziren eta, horren ondorioz, bereziki inbertsioa, baina baita kontsumo pribatua ere, azken hau neurri txikiagoan, izan ziren ekonomia jardueraren bultzagile nagusiak. Zehazkiago adierazita, Txinak %9,5eko hazkundera jaso zuen, aurtengo lehen hiruhilekoan lortutako %9,7 baino apur bat beherago bakarrik. India, berriz, %8,5 hazi zen eta zortzi hamarretan gainditu zuen aurreko hiruhilabeteko emaitza. Ekonomia aurreratueta ez bezala, eta azaleratzen ari diren herrialdeetako gobernuak ahalegindu diren arren, KPI indizeak goranzko joerari eutsi zion eta uztailean %8,4an kokatu zen Indian, eta abuztuan %6,2 gainditu zuen Txinan.

Euroguneko, Europar Batasuneko eta, neurri txikiagoan, AEBetako moteltze nabarmenaren ondorioz, ELGE osatzen duten herrialdeen hazkunde tasa gehiago apaldu zen eta %1,6ra iritsi zen, 2011ko lehen hilekoetan baino zortzi hamarren gutxiago. Zehazkiago adierazita, AEBetan, arlo pribatuaren zorpetze maila handiak, kontsumoko prezioen etengabeko igoerak –abuztuan %3,8ra iritsi ziren, 2008ko irailetik inoiz jaso duten mailarik gorena baita- eta susperraldia sendotzea lortzen ez duen lan merkatuak kontsumo pribatua eta inbertsioa lastatu zituzten, bereziki egoitzetan eginiko inbertsioa, %-6,9ra arte areagotu baitzuen bere jaitsiera tasa. Kanpo arloak BPGren hazkunderari egin zion ekarpenak ezin izan zuen barne eskariaren moteltzea konpentsatu eta, horren ondorioz, BPGren gehikuntza tasa %1,6an kokatu zen, 2009ko amaieratik inoiz jaso duen emaitzarik txikiena baita. Lan merkatuan, aurtengo lehen hiruhilekoaren bizitasunaren ondoren (langabezia tasa %8,8ra jaitsi zen martxoan), enplegua sortzeko erritmoa galgatu zen eta langabezien kopuruak gora egin zuen berriro, abuztuan langabezia tasa parte-hartzaileen %9,1era iritsi arte.

Japonian, kontsumo publikoaren sendotasunak eta kontsumo pribatuaren moteltze txikiagoak inbertsioaren beherakada konpentsatzea lortu zuten eta, horri esker, barne eskariak hainbat hamarretetako ekarpena egin zion hazkunderari. Hala ere, eta gobernuak Japoniako ekonomia suspertze aldera ahalegin handiak egin zituen arren, ekoizteko kateetan gertatu ziren etenek esportazioen beherakada (%-5,1) eragin zuten eta hauek, berriz, BPGren jaitsiera larriagotu zuten, %1,1 murriztu baitzen, aurtengo lehen hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago. Lantegi asko itxi baziren ere, langabeen kopuruak ez zuen gora egin. Aitzitik, gutxika-gutxika murriztu egin zen langabezia tasa %4,6an kokatu arte. Orobat, bi urte eta erdiz jarraian etengabeko deflazioan egon ondoren, uztailean prezioak %0,2 igo ziren eta tasa positibotan jarraitu zuten abuztuan ere. Igoera hori energiaren eta elikagaien garestitzeak eragin zuen,

herrialdera hondamendia ekarri zuten lurrikarak eta ondorengo tsunamiak saltzaileak produktu askorik gabe utzi zituelako.

Europar Batasunak ere BPGren moteltze garrantzitsua nozitu zuen bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilekoan baino zazpi hamarren gutxiago hazi zelako. Hala eta guztiz ere, lortu zuen hazkunde tasa oso hurbil zegoen azken 15 urtean izandako batez bestekotik (1996an seriea hasi zenetik, %1,9 hazi da urtero) eta, edozein modutan, hiruhileko berean AEBek eta Japoniak jaso zituzten gehikuntzen gainera kokatu zen. Erritmo galera orokorra izan zen Eurogunea osatzen duten herrialdeen artean eta talde horretakoak ez diren hainbat herrialdek gehiago haztea lortu zuten, eremuaren gehikuntzaren gainera. Besteak beste, Letonia, Suitza eta Polonia nabarmendu ziren, hurrenez hurren, %5,0, %4,9 eta %4,5 hazi zirelako.

#### INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2009	2010	2010		2011			
			III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
<b>BPG erreala</b>								
AEB	-3,5	3,0	3,5	3,1	2,2	1,6	---	---
Japonia	-6,3	4,0	4,8	2,5	-0,7	-1,1	---	---
Eurogunea 17	-4,3	1,8	2,0	2,0	2,4	1,6	---	---
- Alemania	-5,1	3,7	4,0	3,8	4,6	2,8	---	---
- Frantzia	-2,7	1,5	1,6	1,4	2,1	1,6	---	---
- Erresuma Batua	-4,9	1,4	2,5	1,5	1,6	0,7	---	---
<b>Inflazioa</b>								
AEB	-0,4	1,6	1,2	1,3	2,1	3,4	3,6	3,8
Japonia	-1,4	-0,7	-1,0	-0,3	-0,5	-0,4	0,2	0,2
Eurogunea 17	0,3	1,6	1,7	2,0	2,5	2,7	2,5	2,5
- Alemania	0,2	1,2	1,2	1,6	2,2	2,5	2,6	2,5
- Frantzia	0,1	1,7	1,8	1,9	2,0	2,2	2,1	2,4
- Erresuma Batua	2,2	3,3	3,1	3,4	4,1	4,4	4,4	4,5
<b>Langabezia tasa</b>								
AEB	9,3	9,6	9,6	9,6	8,9	9,1	9,1	9,1
Japonia	5,1	5,1	5,0	5,0	4,7	4,6	4,7	---
Eurogunea 17	9,5	10,0	10,1	10,1	10,0	9,9	10,0	10,0
- Alemania	7,5	6,8	6,9	6,6	6,4	6,2	6,0	6,0
- Frantzia	9,5	9,7	9,8	9,7	9,7	9,7	9,8	9,9
- Erresuma Batua	7,6	7,8	7,7	7,8	7,7	7,9	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Zehazkiago adierazita, Alemania izan zen Europako batez besteko hazkundera gairitu zuen ekonomia handi bakarra. Kontsumo publikoak izan ezik, BPGren gainontzeko osagaiak erritmoa motelteko joera garbia erakutsi zuten eta, horren ondorioz, jardueraren bizitasuna ia bi puntutan galgatu zen, %2,8an kokatu arte. Frantziak, berriz, barne eskarian bakarrik oinarritu zuen bere hazkundera eta inbertsioak egonkortasuna erakutsi bazuen ere, kontsumo pribatuak erritmoa nabarmen gutxitu zuen, hazkundera gutxituz. Oraingoan, bi ekonomia horien apaltzeak ez luke kezka iturri izan behar, lortu dituzten hazkunde tasak oraindik azken hamarkadan izan dituzten batez bestekoaren gainetik daudelako (Alemanian %1,3 eta Frantzian %1,4).

Azaleratzen ari den Europak, berriz, ziurgabetasun handiko fase honi iskin egin zion eta eragin kaltegarria saihestu zuen. Izan ere, eremu horretako hamabi estatuetatik bederatzi Europar Batasunak jaso zuen %1,7 baino gehiago hazi ziren. Inbertsioaren sendotasunak eta esportazioen bizitasunak gehikuntza horiek ahalbidetu zituzten. Beste muturrean, periferiako ekonomiek zikloan duten posizio atzeratuagoak beraien erritmo galera leunagoa izan zedila ahalbidetu zuen. Hala ere, herrialde horietako tasak txikiak izan ziren eta gainontzeko bazkideetakoetatik urrun kokatu ziren. Hain zuzen ere, Italia eta Espainia %1eko mailatik urrundu ziren eta Portugalek bere jaitsiera areagotu zuen %-0,9ra arte.

Lan merkatuan ez zen hobekuntza handirik hauteman eta Europako langabezia tasak %9,5ean jarraitu zuen, langabeek kopurua 23 milioi laguneko mailatik hurbil. Beste behin, portaera onena Alemaniako lan merkatuari egokitu zitzaion, abuztuan langabezia tasa %6,0ra jaitsi baitzuen, 1991ko amaieratik inoizko emaitzarik apalena baita. Gainontzeko herrialdeetan ez da hobekuntzarik hautematen, eta periferiako herrialdeetan goranzko joerak iraun zuen. Espainiak eta Portugalek Europar Batasuneko langabe guztien %25 bildu zuten. Izan ere, abuztuan bi herrialde horietako langabezia tasak berriro igo ziren, hurrenez hurren %21,2an eta %12,3an kokatzeko.

Azkenik, prezioek bilakaera egonkorra erakutsi zuten bai Europar Batasunean (%2,9) bai Eurogunean (%2,5), nahiz eta herrialde parte-hartzaileen emaitzak ez ziren horren berdinak. Izan ere, Alemaniak eta herrialde periferikoek KPI indizea abuztuan oso nabarmen apaldu zuten bitartean (maiatzetik abuztura Italiak zazpi hamarretan gutxitu zuen urte arteko tasa eta Portugalek, berriz, ia puntu batean), Euroguneko gainontzeko herrialdeek goranzko joera izan zuten, beren indizeak %2,2aren eta %3,5aren arteko urkila batean kokatuz. Azaleratzen ari diren herrialdeek gehiago nabaritu zuten prezioen igoera eta ia guztietan abuztuko KPI %4,0aren gainetik kokatu zen. Erresuma Batuak azken talde horrenaren antzeko bilakaera izan du, eta ekainean goranzko joera irauli bazuen ere, abuztuan prezioek %4,5eko gorakada markatu zuten.

Espainian, ahultasuna hauteman zen ekonomia jardueran, Euroguneko zor subiranoaren krisiak okerrera egin izanak baldintzatutako testuinguru batean. Hain zuzen ere, espainiar ekonomia %0,7 hazi zen bigarren hiruhilekoan, hots, lehen hiruhilekorako estimatu den tasa berrikusia baino bi hamarren gutxiago. Lehengaien salneurrien eta langabeziaren igoerek gehi gobernua ezarritako hersturako neurriek barne eskariaren beherakada areagotu zuten, halako moldez ezen kanpo eskariaren portaera aparta bera, hazkundera 2,6 puntu ekarri baitzizkion, ez baitzen gai izan jaitsiera osoa konpentsatzeko.

#### ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	-2,3	0,7	1,5	0,9	0,9	1,2	-0,4
- Familien gastua	-4,3	1,3	2,2	1,5	1,7	0,7	-0,2
- Administrazioaren gastua	3,2	-0,7	-0,1	-0,7	-0,9	2,6	-1,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-16,0	-7,6	-6,7	-6,7	-6,1	-6,0	-6,7
- Ekipamendurako ondasunak	-24,8	1,8	8,7	2,4	1,2	0,3	-3,7
- Eraikuntza	-11,9	-11,1	-11,3	-11,2	-10,6	-10,4	-9,3
- Bestelako ekoizkinak	-16,2	-8,2	-11,0	-3,0	-1,5	-0,4	-2,7
- Izakinen aldakuntza (*)	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	-0,1
Nazio eskaria (*)	-6,4	-1,2	-0,3	-0,7	-0,6	-0,4	-1,9
Esportazioak	-11,6	10,3	11,9	9,4	10,5	12,1	8,4
Inportazioak	-17,8	5,4	9,6	5,0	5,3	6,3	-1,7
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>-3,7</b>	<b>-0,1</b>	<b>0,0</b>	<b>0,2</b>	<b>0,6</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
Nekazaritza eta arrantza	1,0	-1,3	-2,1	-2,2	0,3	0,2	-0,1
Energia	-6,4	3,0	0,6	4,6	6,6	3,4	0,9
Industria	-13,6	0,9	2,5	1,7	1,4	4,1	3,2
Eraikuntza	-6,2	-6,3	-6,5	-6,6	-5,8	-5,4	-4,1
Zerbitzuak	-1,0	0,5	0,4	0,8	1,1	1,3	1,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-6,0	0,6	1,7	0,8	1,0	-0,4	-1,1
<b>GOGORATZEKOAK:</b>							
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,3	1,8	1,6	2,0	2,6	3,5	3,5
- Enplegua (**)	-6,6	-2,4	-2,4	-1,6	-1,4	-1,4	-1,0

(\*) BPGren hazkundera eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.  
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren sendotasuna nabarmendu behar da, aurreko hiruhilekoaren aldean indar apur bat galdu bazuen ere. Orobat, zerbitzuen egonkortasuna, bereziki merkaturatzen direnena, azpimarratu behar da. Eraikuntzak, berriz, hobekuntza garbia izan zuen eta puntu bat baino gehiago gutxitu zuen jaitsiera. Enplegua %1,0 murriztu zen, aurreko hiruhilabeteko emaitza lau hamarrenetan hobetuz. Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioak gero eta gutxiago hazteko joera leuna erakutsi zuen eta, horren ondorioz, KPI indizea apirilko %3,8tik abuztuko %3,0ra moteldu zen.

Administrazio publikoek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu dituen datuen arabera, 30.867 milioi euroko defizita zeukaten abuztuan, kontabilitate nazionalako terminoetan. Desoreka hori BPGren %2,83aren balioak da. Aurtengo lehen zortzi hilabeteetan Estatuko kontuek pilatu duten saldoa 2010eko epealdi berean zegoena baino 4.000 milioi euro txikiagoa izan zen. Horrek adierazten du saldoa %11,5 gutxitu dela, Estatuak urte osorako aurreikusituenarekin bat eginez.

## Ekoizpena eta eskaria

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2011ko bigarren hiruhilabeteko kontu ekonomikoak argitaratu ditu. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomiaren barne produktu gordinak zertxobait moteltzen ari den seinaleak bidali zituen epealdi horretan, urte arteko hazkundera %0,8 hazi baitzen, urte sasoiaren eta egutegiaren eragina zuzenduta duen seriean. Lehen hiruhilekoarekin alderatuta hazkundera %0,2 izan zen. Tasa hori positiboa da, baina oso txikia eta agerian uzten du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomiak apirila eta ekaina bitartean erakutsi zuten bilakaera motela eta zalantzaz beterikoa.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore ekoizle guztiek, salbuespena merkaturatzen diren zerbitzuak direlarik, zertxobait gutxitu zuten beren hazkunde erritmoak. Hala eta guztiz ere, industria izan zen berriro EAEko ekonomiaren arlo dinamikoena eta badirudi ekonomiaren susperraldian bultzagile nagusiaren papera bereganatu duela. Beste aldetik, eraikuntzak hazkunde tasa negatiboak jaso zituen berriro eta agerian uzten du jarduera horren krisia luzea izango dela. Zerbitzuek gehikuntza motela lortu zuten hiruhileko horretan ere eta arlo horretako susperraldia astiro gauzatzen ari dela begi bistakoa da. Sektoreen bilakaera horren ondorioz, EAEko ekonomiaren balio erantsia %0,9 hazi zen 2011ko bigarren hiruhilekoan. Ekoizpena areagotu bazen ere, epealdi horretan bildu ziren zeharkako zergek %0,5eko jaitsiera ezagutu zuten.

EAEko barne eskaria %0,2 hazi zen urte arteko tasan bigarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Agregatuaren bilakaera apala eta egonkorak erakusten du EAEko ekonomiaren barne osagaiak bizi duen geldotasuna. Kontsumoak bere hazkundera gutxitu zuen eta agerian utzi zuen bertoko familiek gastatzeko erabakiak hartzeko unean duten gogorik eza. Zalantzarik gabe, lan merkatuaren egoerak zeharo baldintzatzzen du aldagai horren bilakaera. Administrazio publikoetako kontsumoak aurtengo lehen hilekoetako egonkortasunari eutsi zion, baina aurreko urteetan lortutako hazkunde tasak baino txikiagoak dira oraingoak. Defizit publikoa gutxitzeko aurrekontuetan egin diren mozketek agintarien gastu egitasmoak baldintzatu zituzten. Barne eskariaren beste osagaiak, hau da, kapitaleko eraketa gordinak, berriro egin zuen behera, nahiz eta aurreko epealdietan baino gutxiago jaitsi zen. Eraikuntzak bizitasuna kendu zion EAEko inbertsioari berriz ere.

Hala eta guztiz ere, 2011ko bigarren hiruhilekoan, barne eskariak nahiko ekarpen txikia egin zion EAEko ekonomiaren hazkunderari eta kanpo arloa izan zen neurri handiagoan gehikuntza ahalbidetu zuena, sei hamarren inguruko ekarpena egin zuelako. Beste hiruhileko batez, kanpo arloa izan zen EAEko ekonomiaren sustatzaile nagusia.

#### EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	-2,0	1,2	1,7	1,8	1,4	0,9	0,5
- Familien gastua kontsumoan	-3,9	0,9	1,5	1,5	1,3	0,8	0,3
- Herri administrazioen gastua	5,0	2,3	2,7	3,0	1,5	1,3	1,3
Kapital eraketa gordina	-15,2	-6,0	-6,8	-4,0	-3,1	-1,8	-1,0
Barne eskaria	-5,6	-0,5	-0,3	0,4	0,2	0,3	0,2
Esportazioak	-13,2	7,6	9,8	6,5	10,0	13,3	3,2
Inportazioak	-14,9	5,5	7,7	5,3	8,5	11,6	2,3
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>-3,9</b>	<b>0,3</b>	<b>0,4</b>	<b>0,8</b>	<b>0,8</b>	<b>0,9</b>	<b>0,8</b>
Lehen arloa	-5,5	24,7	9,6	51,8	48,2	-13,9	-16,0
Industria	-12,7	1,8	2,2	3,5	2,8	3,7	3,3
Eraikuntza	-7,4	-9,8	-10,3	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6
Zerbitzuak	-0,1	0,6	0,9	0,4	0,5	0,8	1,0
Balio erantsi gordina	-4,3	0,1	0,3	0,6	0,6	1,0	0,9
Ekoizkinen zerga garbiak	-0,2	2,0	2,0	3,0	2,0	0,0	-0,5

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

## Ekoizpen jarduera

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lehen arloak beherakada nabarmena izan zuen 2011ko bigarren hiruhilekoan eta jaitsiera hori %16,0an estimatu da urte arteko tasan. Datu hori 2005etik nekazaritzak eta arrantzak inoiz jaso duten okerrena da.

Industriaren jarduera, berriz, %3,3 hazi zen 2011ko bigarren hiruhilekoan urte arteko tasan. Emaidza horrek agerian uzten du industriak euskal autonomia erkidegoan duen bizitasuna eta ekonomiaren susperraldian jokatzeko ari den paper garrantzitsua. Hala eta guztiz ere, industria arloaren balio erantsiak moteltzeko joera izan zuen aurtengo lehen hiruhilekoarekin alderatuta eta, maiztasun handiko adierazle batzuen arabera, apaltzeko joera horrek jarraipena izan du uztailean eta abuztuan ere.

### JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak


	2009	2010	2010		2011			
			III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
<b>Industria</b>								
Balio erantsi gordina	-12,7	1,8	3,5	2,8	3,7	3,3	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	-20,6	2,3	2,6	2,8	4,0	2,8	2,8	2,8
Industria giroaren indizea	-42,0	-20,3	-16,6	-15,7	-8,7	-9,0	-11,4	-15,5
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	66,9	69,8	71,8	73,5	72,1	75,0	---	74,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-7,8	-4,3	-3,2	-2,6	-2,3	-1,8	-2,2	-2,3
<b>Eraikuntza</b>								
Balio erantsi gordina	-7,4	-9,8	-9,8	-7,9	-4,6	-5,6	---	---
Eraikuntzaren indizea	-12,2	-16,9	-24,7	-17,2	-6,8	-14,8	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-24,6	-1,4	1,6	42,6	10,6	2,1	67,9	---
Etxebizitzaren salerosketak	-19,4	25,4	25,9	18,5	-1,5	-27,6	-42,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-6,6	-7,5	-7,2	-7,9	-7,3	-8,4	-8,9	-9,1
<b>Zerbitzuak</b>								
Balio erantsi gordina	-0,1	0,6	0,4	0,5	0,8	1,0	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	-13,5	5,3	4,6	3,8	0,7	2,3	---	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	-2,1	12,3	13,9	12,1	7,2	7,8	10,3	3,4
Hoteletako okupazioa	41,3	43,7	58,5	40,1	33,9	48,1	60,6	68,2
Negozio zifren indizea	-13,1	2,8	1,3	1,7	2,3	-1,2	-0,2	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,6	0,9	1,1	1,1	1,4	1,2	0,8	0,5

(\*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

**Ekonomia arloen balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak enpresarien iritziez argitaratzen duen inkestaren datuek industriaren mantsotzea adierazten dute. Industria giroaren indizea -9,0aren inguruan kokatu zen bigarren hiruhilekoan eta azken hilekoetako datuek baieztatzen dute sektorearen etorkizuneko bilakaera kezagarria dela. Orobat, inkesta horretako beste aldagai batzuek ere, hala nola ekoizteko ahalmenaren erabilera graduak balio handiena lortu zuen 2011ko bigarren hiruhilekoan, baina hirugarren hiruhilekorako jaitsiera neurritsua espero da. Aurtengo lehen hilabeteetan, Europako ekonomien susperraldiak sortu zuen testuinguruaz baliatu zen EAEko industria. Une hauetan, ordea, testuinguru ekonomiko hori ziurgabetasunez eta arriskuez betetzen ari da, EAEko industriaren geroan modu negatibo batean eraginez.

Eustatek industria ekoizpenaren indizeaz argitaratu duen informazioak ere urte hasieran sektoreak erakutsi zuen hazkunde abiadura moteldu dela adierazten du. Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, moteltzeko joera saihestu duen osagai bakarra ekipamendurako ondasunen taldea izan da, bere hazkunde tasa gutxitu beharrean hilabete batzuk eman baititu bizitasuna areagotuz. Edozein modutan, datozen hilekoak erabakigarriak izango dira jakiteko moteltzeko joera iragankorra izango den edo, aitzitik, hazkunde negatiboko beste fase baten hasiera ote den. Industriaren azpi-atalak aztertuta, makineria eta ekipamenduak, garraio materialak, ekipamendu elektrikoak eta farmazia ekoizkinek suspertzeko joera garbia eta inolako atzera pausurik gabea erakutsi dute.

Eraikuntzak beste beherakada bat nozitu zuen 2011ko bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino are biziagoa izan zena, urte arteko tasan %-5,6ko datua jasota. Jaitsiera hori ondo islatuta geratu da sektore horretako koiuntura adierazleetan. Eustatek egiten duen eraikuntzako koiuntura indizearen datuek jarduera adar horren beherakada %14,8an estimatu zuten bigarren hiruhilekoan. Narriadura biziko portaera hori bi osagaietan hauteman da, hala eraikinen atalean nola obra zibilean. Eraikuntzan gauzatzen ari den doikuntza erakusten duen eta eskariaren eta eskaintzaren artean dagoen desoreka islatzen duen beste aldagai bat etxebizitzaren salmenta da. Adierazle horrek hobekuntza bat erakutsi zuen 2010. urtean zehar, baina 2011ko otsailetik joera aldatu zuen eta tasa negatibo garrantzitsuak pilatu dira higiezin salmenten bilakaeran.

Zerbitzuetako jarduera adarrak %1,0 hazi ziren 2011ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta, eta bere hazkunde erritmoa areagotu zuen EAEko ekonomiaren sektore bakarra izan zen. Portaera onena merkaturatzen diren zerbitzuek izan zuten, beren balio erantsia ere %1,0 hazi baitzen 2010eko hiruhileko beraren aldean. Merkaturatzen ez diren zerbitzuek, berriz, moteltzeko joera erakutsi zuten eta 2011ko apirilaren eta ekainaren artean %0,9 gehitu ziren.

Merkatuko zerbitzuekin lotura duten adierazleen analisiak seinale kontrajarriak bildu zituen 2011ko bigarren hiruhilekoan. Alde batetik, merkataritzaren atalak ahultasuneko zantzuak erakusten jarraitu zuen eta barne merkataritzako indizeak, termino errealean eta egutegiaren eragina zuzenduta, egiaztatzen zuenez, salmentak %4,3 gutxitu ziren urte arteko tasan. Narriadura orokorra izan zen, hala handizkako merkataritzan nola txikizkakoan. Salbuespena makineria eta ekipamenduko handizkako merkataritzan gauzatu zen, epealdi horretan hazkunde tasa positiboa lortu baitzuen. Turismoari dagokionez, establezimendu turistiko hartzaileen inkestak eskainitako informazioak arlo horren portaera ona erakusten du. Izan ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hotelen betetze maila uztailean eta abuztuan, hurrenez hurren, %60,6an eta %68,2an kokatu zen. Zerbitzuetako lan merkatuaren adierazleek sektorearen bizitasuna baieztatzen dute, arlo horretako enpleguak hazkunde tasa positiboak lortu zituela estimatu zuelako.


### Eskariaren osagaiak

Azken kontsumoan eginiko gastuak moteltzen jarraitu zuen 2011ko bigarren hiruhilekoan eta batez beste %0,5eko urte arteko hazkunde tasa jaso zuen. Alde batetik, administrazio publikoetako gastua zertxobait apaldu zen eta urte arteko tasan %1,3 gehitu. Beste aldetik, narriadura biziena familien kontsumoan gauzatu zen eta aldagai horren hazkunde tasa %0,3an kokatu zen, azken hiruhilekoetan moteltzeko joera garbia erakutsiz. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da hiruhileko hau 2010eko bigarrenarekin alderatzen dela eta garai hartan erosketak aurreratzen zirela uztailean indarrean sartu behar zen BEZ altuagoa saihesteko, urte arteko tasa baldintzatuz.


EAEko familien kontsumoari dagokionez, argitaratu diren adierazleek aipatu den hazkunde ahul eta geldoa erakusten dute. Merkataritzako salmenten indizeak eta ibilgailuen matrikulazioek hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten berriro. Beste aldetik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak osatzen duen kontsumitzailearen konfiantza indizea 10 puntu jaitsi zen bigarren hiruhilekoan aurreko emaitzarekin alderatuta, 2008. urtetik izan duen beherakada handienetako bat delarik. Kontsumitzaileek kezka handia aitortzen zuten bai familien egoera ekonomikoaz, bai ekonomia orokorraz, bai langabeziarekin. Gaur egun, ekonomiaren testuinguruan hedatu den ziurgabetasuneko egoerak eta lan merkatuaren egoera oso txarrak kontsumitzaileek konfiantza galaraztea eragin zuten eta hersturako neurriak hartu zituzten kontsumitzeko orduan. Zuhurtasuna nagusitu zen arrisku garrantzitsuko testuinguru horretan eta EAEko familiek ezinbestekotzat jotzen ez zituzten erosketak ziurgabetasun gutxiagoko une batera atzeratu ziren.

Eskariaren osagaien bilakaera  
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Kapitaleko eraketa gordinak %-1,0ko tasa negatiboa jaso zuen 2011ko apirilaren eta ekainaren artean urte arteko tasan. Hori horrela izanda ere, emaitza hori agregatuak 2008ko bigarren hiruhilekotik jaso duen onena da. Jaitsieraren leunketa ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bilakaera bikainean oinarritu da, ondasun mota horretako ekoizpenaz argitaratu den informazioaren arabera. Ekipamendurako ondasunen inportazioak edo zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa bezalako adierazleek jaitsiera garrantzitsuak jaso zituzten 2011ko bigarren hiruhilekoan. Dena dela, agregatuaren hazkunde tasa positiboa galarazi zuen osagaia eraikuntzan eginiko inbertsioa izan zen.

#### BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011			
			III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
<b>Kontsumo pribatua</b>								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-3,9	0,9	1,5	1,3	0,8	0,3	---	---
BMI txikizkaria	-3,7	-0,6	-3,4	-2,6	-5,0	-3,5	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-1,6	-0,5	-1,8	-3,9	-5,9	-5,5	-5,1	-5,0
Landunak txikizkarian	-3,2	0,1	-0,1	0,6	-1,1	-1,6	---	---
Automobilien matrikulazioa (*)	2,6	1,9	-31,6	-20,1	-22,8	-22,5	-11,5	-12,4
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	75,6	83,3	81,0	89,0	91,0	81,0	---	74,0
<b>Kapital eraketa gordina</b>								
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-15,2	-6,0	-4,0	-3,1	-1,8	-1,0	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-25,1	1,1	10,0	0,0	3,1	4,6	4,9	4,9
IPI ekipamendua Espainia (*)	-23,5	-1,0	-0,3	1,2	3,4	3,5	3,5	3,8
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	-31,0	4,7	8,3	5,3	0,5	-5,8	8,0	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-35,7	0,5	-0,6	-7,6	-16,1	-20,2	-19,6	-19,2

(\*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.


#### Kanpo saldoa

Munduko merkataritzak bat egin zuen munduko ekonomiak erakutsi zuen hazkunde erritmoa gutxitzeko joerarekin. Izan ere, ekonomiaren egoerak ezagutu duen narriadura gero eta biziagoaren ondorioz, Munduko Merkataritza Antolakundeak munduko merkataritzaren 2011.


urterako aurreikuspenak zazpi hamarrenetan gutxitu ditu eta %5,8an kokatu. Datu hori 2010ean lortu zen baliotik zortzi puntu luze beherago dago.

## Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

Europako merkatuetan ezegonkortasun handia bizi bazen ere eta euroak dolarraren aldean balioa nabarmen areagotu arren, europar salerosketek ez zuten kalterik nabaritu. Aitzitik, Europako esportazioak, kalitate handiko ekoizkinak saltzen dituztenek, nazioarteko salerosketen buruan kokatu ziren. Izan ere, Europako salmentek goranzko joerari jarraipena eman zioten eta gehikuntza tasa gero eta biziagoak lortu zituzten. Hain zuzen ere, Alemaniak,

Frantziak, Erresuma Batuak eta Italiak kanpoan saldutakoa %20,0 baino gehiago hazi zen, eta ekonomiaren atzeraldiaren aurreko tasak baino gehikuntza handiagoak lortu zituzten. Herrialde horietako hazkunde garrantzitsu horiek, eurotan neurtuta 2008ko erdialdean lortutako gehienezko balioa ia gainditu baitzuten, bide eman zieten europar esportazioei, oro har, %26,7 hazteko.

Garapen bidean dauden ekonomien esportazioek lortutako hazkunde tasak ere garrantzitsuak izan ziren, baina ekonomia garatuetakoak ez bezala, erritmoa moteltzeko joera garbia erakutsi zuten. Eskari globalaren jaitsierak eta Japonia isolatu zuen lurrikara handiaren ondorioz munduko ekoizpen kateetan etenak gertatu izanak eremu horretako salmentek izan zuten moteltzearen zati gehiena azaltzen dute. Orobat, Txinako kasuan, yuan diruaren azken hilabeteetako balio irabaziak eta lan eskuaren garestitzeak ere eragin negatiboa izan zuten. Aurreko gutzia kontuan izanda, Asiako erraldoiak ia hiru puntutan jaitsi zuen bere salmenten erritmoa, %22,4ra arte. Indiak eta Hego Koreak, berriz, 16 eta 11 puntutan gutxitu zuten erritmoa, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, salmenta sendoak lortu zituzten oraindik eta inoizko baliorik gorenetatik hurbilekoak.

Testuinguru horretan, EAEko esportazioak %2,3 hazi ziren bigarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko hiruhilabeteko %31,6arekin alderatzen bada txikia izan arren, kontuan hartu behar da 2011ko bigarren hiruhilekoan EAEko salmenten balioak 5.000 milioi euroko langa gainditu zuela, serie historikoa hasi zenetik jaso den bigarren daturik gorena delarik –lehena 2008ko bigarren hiruhilekoan kontabilizatu zen, orduko hartan 5.717 milioi euro salduta-. Izan ere, sailkapen guztiek, hala ekoizkin motaren arabera nola helburuaren arabera, aurreko hiruhilabetekoak baino hazkunde tasa txikiagoak jaso zituzten, nahiz eta beren balioak askoz ere altuagoak izan ziren. Arrazoa honako hau da: 2010eko lehen hiruhilekoan ekonomiaren egoerak EAEko salerosketak gutxitu zituen eta bigarren hiruhilekoa arte EAEko merkataritza ez zen suspertzen hasi. Aurrekoaren ondorioz, 2010eko lehen hilabeteetako balio apalek 2011ko emaitza onekin alderatuta hazkunde tasa bikainak ekarri zituzten, baina bigarren hiruhilabeteetako alderaketak maila berdintsuagoekin egin da.

Inportazioak, berriz, %10,5 areagotu ziren eta 4.500 milioi euroko balioa kontabilizatu zuten. Bi bilakaera horien emaitzak konbinatuta, EAEko merkataritzaren superabita 482,6 milioi eurora iritsi zen bigarren hiruhilekoan. Energiatz bestelako atalean, antzeko joera hauteman zen. Izan ere, hala esportazioek nola inportazioek aurtengo lehen hiruhilekoan baino hazkunde tasa txikiagoak jaso zituzten, baina eurotan neurtuta lortutako kopuruak garrantzitsuak izan ziren berriro. Orobat, energiakoak ez diren ekoizkinen merkataritza saldoak 1.654 milioi euroko superabita lortu zuten.

## ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERRIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2011-II
	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	
<b>ESPORTAZIOAK</b>							
<b>Guztira</b>	<b>-26,6</b>	<b>20,1</b>	<b>21,7</b>	<b>17,3</b>	<b>31,6</b>	<b>2,3</b>	<b>5.025.595</b>
Energetikoak	-30,8	23,0	55,5	23,3	212,8	0,2	445.310
Ez energetikoak	-26,1	19,9	18,5	16,7	24,1	2,5	4.580.285
<b>INPORTAZIOAK</b>							
<b>Guztira</b>	<b>-38,9</b>	<b>24,3</b>	<b>22,7</b>	<b>24,4</b>	<b>32,9</b>	<b>10,5</b>	<b>4.542.988</b>
Energetikoak	-40,9	26,5	19,2	41,4	54,0	12,9	1.616.970
Ez energetikoak	-37,8	23,1	24,8	16,8	22,4	9,2	2.926.018

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2010eko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


Ekonomia eremuka, herrialde aurreratuetan eginiko salmenten bizitasuna nabarmendu zen, Alemaniako (%25,1) eta AEBetako (%11,7) merkatuetan lortutako salmentak lehen tokietan daudelarik. Azaleratzen ari diren herrialdeetan, ordea, salmentak zertxobait apaldu ziren. Saldu ziren produktuei dagokienez, EAEko esportazioek ia ez zuten ezer aldatu beren osara. Metal arrunten eta ekipamendurako ondasunen bilakaerak, esportazio guztien %71 biltzen baitute, salmentaren guztizkoa baldintzatzen du. Inportazioen artean, energiako ekoizkinen beharrak erosketen ehuneko garrantzitsu bat pilatzen du.

Europar Batasuna izan zen berriro EAEko esportazioen helburu behinena, merkatu kuotaren %62 baino gehiago biltzen baitu. Alemaniako ekonomiaren sendotasunak eta frantziarraren egonkortasunak eremu horretan saldutakoa %4,9 areagotzea ahalbidetu zuten. Hazkunde tasa horren ondorioz, Europar Batasunak 3.136 milioi euro gastatu zituen EAEn ekoiztitako produktuetan. Diru kopuru horretatik ia %44 Alemaniak, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak bereganatu zuten. Herrialde horietan, burdinaren galdaketa eta beraren manufakturen erosketa eta ibilgailu automobilena nabarmendu ziren. Izan ere, Alemaniak erosi zituen saldutako automobil guztien %36,5 eta Frantziak, berriz, %17,6. Hala ere, automobilen erosketa horiek ez zuten garraio materialaren hazkundera suspertu, krisiaren aurreko mailara ez baitira itzuli eta beherantz egin zuen berriro.

EAEko ekonomiaren hazkunde apala eta euroaren balio irabazia egon ziren Europar Batasunetik etorritako inportazioen moteltzean, %0,6 gutxitu baitziren. Makinak eta tresna

mekanikoak eta elektrikoak atalen erosketak nabarmen gutxitu ziren eta metal arrunten inportazioak asko apaldu ziren. Arrazoi horiengatik inportazioen erritmoa galgatu zen. Hala ere, eremuan erositakoaren balioak 2.042 milioi euroak gairitu zituen eta horietatik %45 baino gehiago Alemanian eta Frantzian erosi ziren.

#### Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoak



Iturria: Eustat. 2011ko bigarren hiruhilabeteko datuen arabera.

Euroak balioa irabazi bazuen ere, EAEko produktuen salmenta AEBetan ez zen kaltetuta atera. Are gehiago, EAEko esportazioek estatubatuar merkatuaren zati txiki bat berreskuratu zuten eta herrialde horrek puntu bat areagotu zuen esportazio guztizkoan duen pisua, garapen bidean dauden herrialdeetan eginiko salmenten kaltetan. Horiek horrela izanda, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako esportazioak AEBetara %11,7 hazi ziren eta 373 milioi euro baino gehiago kontabilizatu zuten. Salmenta horien osakerari dagokionez, Europar Batasuneko banaketa ez bezala, AEBetan hazkunde handiena erregai mineralei egokitu zitzaizen, salmenta %47,4 igo zelako. Hala eta guztiz ere, datu esanguratsuenak inportazioen eskutik iritsi ziren. Izan ere, EAEko eragileek herrialde hartan eginiko erosketak %148 areagotu zituzten eta hazkunde tasa positiboak berreskuratu ziren urtebete bat baino gehiago etengabeko jaitsierak jaso ondoren. Salmentetan bezala, erosketetan ere pisu garrantzitsua izan zuten erregai mineralek, inportazioak 210 milioi euroak izatea ahalbidetu baitzuten, serie historikoa hasi zenetik inoizko emaitzarik gorena baita.

## EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Mila € 2011 II	Guztiarekiko ehunekoak
	2009	2010	2010		2011			
			III	IV	I	II		
<b>Esportazioak</b>								
ELGE	-30,7	19,4	20,0	27,2	38,8	8,0	3.879.409	77,2
Eurogunea	-32,6	23,1	18,5	34,1	30,1	6,5	2.587.315	51,5
Europako kide berriak	-30,9	17,1	8,2	18,1	29,2	4,4	227.356	4,5
Europar Batasuna 27	-33,0	22,6	20,3	29,3	32,3	4,9	3.136.929	62,4
Errusia	-47,1	51,1	105,9	52,0	74,0	20,3	43.363	0,9
Txina	-35,0	54,0	175,4	39,9	17,5	31,7	122.944	2,4
Brasil	-25,0	55,4	98,5	16,2	262,3	16,2	100.942	2,0
<b>Inportazioak</b>								
ELGE	-33,7	20,2	10,4	12,6	9,7	6,2	2.554.932	56,2
Eurogunea	-36,9	17,7	7,6	5,0	15,6	-3,4	1.616.360	35,6
Europako kide berriak	-35,9	7,1	22,1	6,5	58,3	-13,1	98.659	2,2
Europar Batasuna 27	-37,0	20,0	11,8	6,5	15,5	-0,6	2.042.682	45,0
Errusia	-47,0	37,9	16,3	50,4	105,5	61,5	1.015.509	22,4
Txina	-36,4	23,5	62,0	21,7	17,4	4,7	215.065	4,7
Brasil	-73,0	18,6	168,2	-52,9	6,9	39,0	38.143	0,8

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2010eko datuak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ELGE erakundearen parte hartzen ez duten herrialdeekiko merkataritza harremanek ere bilakaera ona izan zuten eta eremu horretara esportatutakoak 1.146 milioi euroak gainditu zituen. Bezero nagusiek (Errusia, Txina eta Brasil) batez ere ekipamendurako ondasunak erosi zituzten; nagusiki makinak eta tresna mekanikoak, eta ibilgailu automobilak. Inportazioei dagokienez, EAEko eragileek ia 1.300 milioi euro gastatu zituzten hiru herrialde horietako produktutan, baina erosketak ez zeuden horren kontzentratuta. Errusia erregai mineralen hornitzaile nagusi gisa nabarmendu zen. Hain zuzen ere, herrialde horrek Euskadik erosi zuen erregai guztiaren %58,6 saldu zuen. Txinak, berriz, makinak eta tresna elektrikoak eta mekanikoak saldu zituen, eta Brasilek burdinaren galdaketak.


Azkenik, aipamen berezia merezi du EAEren eta eremu guztien arteko salerosketak, salbuespen bakarra ELGEtik kanpoko eremua delarik, berarekiko merkataritza defizita 841,8 milioi eurora iritsi baita, autonomia erkidegoaren aldekoak izan direla. Zehazkiago, Europar Batasunarekin bigarren hiruhilekoan izan zen merkataritza harremana nabarmendu da, 1.000 milioi eurotik gorako superabita lortu zelako.

## Lan merkatua


2009. urtean pairatutako narriadura biziaren eta 2010eko jaitsiera leunaren ondoren, aurtengo urtearen hasieran bazirudien enplegua sortzeko unea laster iritsiko zela, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak baina oso txikiak jaso zirelako. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilekoan EAEko lan merkatuak atzera pauso bat eman zuen suspertzeko ibilbidean eta landunen bilakaerak okertze garrantzitsua erakutsi zuen. Are gehiago, hirugarren hiruhilekorako eskura dagoen informazioak seinalatzen du lan merkatuaren narriadura areagotu dela, enplegu garbia sortzen hasteko unea geroratu.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzza eta INE.

Enpleguaren suspertzeko joerak izan zuen etena lan merkatua aztertzeko orduan erabiltzen diren estatistika guztietan hauteman da. Hain zuzen ere, Eustatek estimatzen dituen kontu ekonomikoek %0,4an kokatu zuten enplegu galera bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteko emaitza hiru hamarren jaitsiz. EAEko estatistika erakundeak ere lan merkatuaz egiten duen inkestak (BJA) aurrekoa baino irudi negatiboagoa eskaini zuen, landunen urte arteko tasa %-0,8an kokatuta, lehen hiruhilabetean jasotako emaitza baino puntu erdi bat beherago dagoelarik. Azkenik, Gizarte Segurantzako afiliazioak %0,3ko jaitsiera izan zuen bigarren hiruhilekoan, baina %-0,8ra areagotu zen abuztuan.

Enpleguaren beherakada nabarmen hori ekonomiaren sektore guztietara hedatu zen, salbuespena zerbitzuak izan zirelarik. Hala ere, arlo horrek sortutako enplegua aurreko hiruhilabetekoa baino txikiagoa izan zen (hurrenez hurren, %1,1 eta %1,5), kontsumoaren bilakaerak erakutsi zuen ahuleziak guztiz baldintzatuta. Eraikuntzak, berriz, enplegu gehien galtzen duen sektorea izaten jarraitu zuen, aurreko hiruhilabeteko jaitsiera areagotuz, %-5,8tik %-7,6ra igaroz. Beherakada horren arrazoiak dira, alde batetik, egoitzetan eginiko inbertsioaren jaitsiera, finantzaziorako baldintzak gogortu zirelako, eta beste aldetik, obra zibileko egitasmoetan egin den doikuntza, martxan jarri diren aurrekontuak orekatzeko planen ondorioz. Azkenik, industriari dagokionez, honek ere enplegua galdu bazuen ere (%-1,5), aurreko hiruhilekoetako baino galera txikiagoa izan zuen.

### ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Enplegua guztira	-3,5	-0,9	-0,7	-0,2	-0,5	-0,1	-0,4
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	-0,4	1,2	1,1	1,0	1,3	1,0	1,2
Enplegua lehen arloan	-3,3	-1,0	-0,5	-2,4	-6,2	-5,9	-4,5
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-2,3	26,0	10,2	55,5	58,0	-8,5	-12,0
Enplegua industrian	-9,6	-3,6	-3,4	-1,7	-1,6	-1,7	-1,5
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	-3,4	5,6	5,8	5,3	4,5	5,5	4,9
Enplegua eraikuntzan	-7,9	-6,9	-5,5	-6,8	-8,5	-5,8	-7,6
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	0,5	-3,1	-5,1	-3,2	0,7	1,3	2,2
Enplegua zerbitzuetan	-0,6	0,9	0,8	1,3	1,1	1,5	1,1
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	0,5	-0,3	0,1	-0,9	-0,6	-0,7	-0,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Aipatua izan den enpleguaren okertzeak lan faktorearen itxurazko produktibitatea aurreko hiruhilekoan baino zertxobait gehiago haztea ahalbidetu zuen, %1,0tik %1,1era igaro baitzen. Beraz, azken hamabost urteko batez besteko balioetatik hurbil jarraitzen du. Hobekuntza horretan parte hartu zuten bai industriak (%4,9) bai eraikuntzak (%2,1), enpleguaren galeraren ondorioz beren ekoizkortasuna areagotu zutelako. Zerbitzuek, berriz, nabarmen murriztu zuten bere produktibitatearen galera, %-0,1era arte.

BJA inkestaren arabera, landunen jaitsiera gizonen artean gauzatu zen (%-1,8), emakumeen artean oraindik enplegua sortu zen bitartean (%0,4). Horren ondorioz, bi kolektibo horien arteko aldea gutxitu zen berriro. Adinaren arabera, ez zen enplegurik sortu ez gazteenen artean (%-5,4) ez 25etik 44ra bitarteko taldean (%-3,5). Hala ere, enplegu tasek hobekuntza txikiak jaso zituzten aurreko hiruhilekoaren aldean.

**PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA**

Ehunekoak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
<b>Partaidetza tasa guztira</b>	<b>55,6</b>	<b>55,9</b>	<b>56,1</b>	<b>56,3</b>	<b>55,9</b>	<b>56,3</b>	<b>56,6</b>
- Gizonak	64,0	64,0	64,1	64,5	63,9	63,9	63,4
- Emakumeak	47,6	48,3	48,5	48,5	48,4	49,1	50,0
- 16 urtetik 24ra	32,0	31,9	33,0	32,1	31,0	31,8	31,4
- 25 urtetik 44ra	87,6	87,3	87,6	87,8	86,5	87,7	88,1
- 45 urte eta gehiago	38,1	39,3	39,1	39,6	40,0	40,1	40,4
<b>Enplegu tasa guztira</b>	<b>51,0</b>	<b>50,8</b>	<b>51,0</b>	<b>51,4</b>	<b>50,3</b>	<b>50,3</b>	<b>50,4</b>
- Gizonak	58,6	57,8	58,0	58,4	57,1	56,8	56,8
- Emakumeak	43,9	44,2	44,3	44,7	43,9	44,1	44,4
- 16 urtetik 24ra	24,7	23,9	24,8	24,8	22,3	23,4	24,0
- 25 urtetik 44ra	79,8	78,9	79,5	80,0	77,3	77,4	77,5
- 45 urte eta gehiago	36,3	36,8	36,6	36,9	37,3	37,2	37,3
<b>Langabezia tasa guztira</b>	<b>8,1</b>	<b>9,2</b>	<b>9,1</b>	<b>8,8</b>	<b>10,0</b>	<b>10,7</b>	<b>10,9</b>
- Gizonak	8,4	9,6	9,5	9,5	10,5	11,2	10,5
- Emakumeak	7,8	8,6	8,6	7,9	9,2	10,2	11,3
- 16 urtetik 24ra	23,0	25,1	25,0	22,5	28,0	26,3	23,7
- 25 urtetik 44ra	8,9	9,6	9,2	8,9	10,7	11,7	12,0
- 45 urte eta gehiago	4,8	6,6	6,6	6,8	7,2	7,3	7,7

Iturria: BJA (Eustat).

Beste aldetik, lan merkatuan parte hartzen dutenen kopurua 12.100 pertsonatan igo zen bigarren hiruhilekoan. Zenbateko hori %1,2ko urte arteko aldakuntza tasa baten baliokidea da eta aurreko hiruhilekoaren emaitza sei hamarrenetan jaitsi da. Beste behin, bilakaera kontrajarriak hauteman ziren gizonen eta emakumeen artean. Izan ere, lehenengoek lan merkatua uzteko joera erakutsi zuten bitartean, emakumeek gero eta partaidetza handiagoa dute. Emakumeen parte-hartze tasa bederatzi hamarren igo zen eta inoizko mailarik gorenean kokatu zen (%50,0). Beste aldetik, 16 urtetik gorako biztanleria bere horretan mantendu zen. Bi arrazoi horiengatik, partaidetza osoa hiru hamarrenetan igo zen, %56,6ra arte.

Parte-hartzaileen hazkundeak eta landunen jaitsierak bilakaera negatiboa eragin zuten langabeziaren zenbakietan. Hain zuzen ere, urte arteko tasan lanik gabeko biztanleria %20,9 areagotu zen, aurtengo lehen hiruhilekoan jasotako %23,2 baino zertxobait gutxiago, baina oraindik oso tasa altua delarik. Horren ondorioz, langabezia tasa %10,9an kokatu zen. Horrelako baliorik ez zen 2001. urtetik jasotzen eta Europako emaitzetatik (%9,5) gero eta urrunago dago, bertan egonkortasuneko bilakaera hauteman baita.

### LANGABEZIAREN BILAKAERA


Mila lagun eta tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Langabeak BJA inkestaren arabera	84,2	95,9	95,0	92,5	104,2	113,1	114,9
Langabeak BAI inkestaren arabera	115,6	110,7	109,8	104,3	114,9	123,5	122,4
Langabeak SEPEren erregistroetan	120,5	132,4	130,1	128,6	133,8	146,7	148,6
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	8,1	9,2	9,1	8,8	10,0	10,7	10,9
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	11,0	10,5	10,4	10,0	10,9	11,6	11,6

Iturria: Eustat, INE eta SEPE.

Enpleguaren zenbatekoek okerrera egin bazuten ere, enplegua erregulatzeko baimendu ziren dossierren kopurua berriro gutxitu zen. Hain zuzen ere, 2011ko urtarriletik abuztura bitartean, 943 dossier erregistratu ziren, 2010eko epealdi berean baino %33,8 gutxiago. Are handiagoa da dossier horien eragina nozitu zuten langileen kopuruaren beherakada, guztira 13.367 lagunera iritsi baitzen, 2010eko emaitza %47,3 murriztuz. Industria jardueraren susperraldiak zerikusi handia izan zuen dossierren kopuruaren jaitsierarekin. Hala ere, sektore horrek aurkeztu zituen berriro besteek baino dossier gehiago, nahiz eta kontratua amaitzeko dossier gehienak zerbitzuetakoak izan ziren.

**Langabezia tasaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Azkenik, enplegu finkoa %1,3 murriztu zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan, eta hiruhileko askotan balio negatibotan kokatu ondoren, hazkunde positibo txikia (%0,1) aurkeztu ondoren. Aldi baterako enpleguak, berriz, gehikuntza apala lortu zuen, %0,7, kontratu mugagabeen bilakaera neurri batean konpentsatuz. Bi bilakaera horien ondorioz, aldibaterakotasuneko tasa lehen hiruhilekoan baino bi puntu gorago kokatu zen (%20,2an aurreko hiruhilabeteko %18,2aren aldean).

**ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK**

	2009	2010	2010				2011	
			II	III	IV	I	II	Abuztua
Dosierren kopurua	2.565	1.993	452	364	494	380	367	82
Eragindako langileak	68.722	35.426	7.176	7.799	8.378	5.588	4.337	1.526
<i>Dosier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	1.170	1.051	88	200	614	365	417	81
- Behin-behineko etetea	65.574	32.349	6.844	7.228	6.843	4.938	3.603	1.344
- Kontratua amaitzekoa	1.978	2.026	244	371	921	285	317	101

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

### Prezioak, kostuak eta soldatak


Bigarren hiruhilekotik, petrolioaren salneurrien garestitzeak prezioen bilakaera baldintzatu du eta horrek prezioak neurtzen dituzten adierazle guztiak gorantz igoarazi ditu. Hala eta guztiz ere, azken hilabeteetan petrolio gordinaren salneurria nazioarteko merkatuetan hamar dolar baino gehiago jaitsi da, munduko ekonomiaren moteltzeagatik eta lehengai horretako etorkizuneko eskarian egin den beheranzko berrikustearengatik. Horrek bide eman du prezioen goranzko erritmoan zuzenketa txiki bat egiteko.

Beste aldetik, lan merkatuak bizi dituen zailtasunek soldata kostuetan doikuntza garrantzitsuak egitera behartu ditu eta dagoeneko sektore guztietan hauteman dira jaitsiera garrantzitsuak, nahiz eta negoziazio kolektiboan oraindik soldaten igoera garrantzitsuak barne hartzen dituzten akordioak sinatzen diren.

### Prezioak

EAEko ekonomiaren prezioek, BPGren deflatorearen bidez hurbilduta, %1,8ko gehikuntza izan zuten bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta, aurreko datua bi hamarrenetan gaindituz. Kontsumo pribatuaren deflatorea (%3,2) da oraindik goranzko joera biziena erakusten duena, kontsumo publikoarenak berriro balio negatibo bat (%-0,5) jaso zuen bitartean, nahiz eta aurrekoak baino txikiagoa izan zen. Kapital eraketa gordina, berriz, %1,3an mantendu zen, aldagai horren ohiko bilakaera kontuan hartuta nahiko balio apala delarik.

KPIren bilakaerari dagokionez, bigarren hiruhilekoan aurreko epealdietako goranzko joera bertan behera geratu zen eta salneurrien hazkundeak moteltzen hasi ziren, abuztuan, hilabete horretakoak baitira argitaratu diren azken datuak, %2,8ko tasa lortu arte. Horri esker, dagoeneko lau hilabetez jarraian pilatu dira jaitsierak, aurreko hilabeteetan adierazle horrek nozitu zituen igoerak iragankorrak zirela agerian utziz. Izan ere, gehikuntza horiek petrolioaren eta lehengaien prezioen hazkunde garrantzitsuak eta zeharkako zergen igoera biziek eragin zituzten. Goranzko indar horiek guztiek prezioetan izan duten eragina emeki-emeki desagertzen ari da. Hain zuzen ere, hala petrolioaren salneurriak nola beste lehengai batzuenak apaldu dira azken hilabeteetan. Orobat, 2010eko uztailleko BEZaren igoerak izan zuen eragina galtzen ari da. Aurrekoaren ondorioz, datozen hilabeteetan indize orokorrak moteltzeko joerari jarraipena emango diola espero da, beti ere zerga igoera gehiagorik onartzen ez den bitartean.

**KPIren bilakaera**  
 Urte arteko aldakuntza tasak


Iturria: Eurostat eta INE.

Azpiko inflazioari dagokionez, portaera gorabeheratsua erakusten duten hainbat osagai baztertzan dituen kontsumoko prezioen hondoko joera hobeto seinalatzen baitu, hazkunde erritmoa %2,2ra arte biziagotu zuen bigarren hiruhilekoan, beste arrazoi batzuen artean lehenago aipatu den BEZaren igoerak eta tabakoaren garestitzeak baldintzatuta. Hala ere, ondorengo hilabeteetan urte arteko tasa apaldu du eta abuztuan %1,6an kokatua zuen, azken bederatzi hilabeteke emaitzarik apalena delarik.

**KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA**

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2009	2010	2011			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
<b>Inflazioa guztira (%100)</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>3,4</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>	<b>2,8</b>
<b>Azpiko inflazioa (%83,5)</b>	<b>1,1</b>	<b>0,7</b>	<b>1,9</b>	<b>2,2</b>	<b>1,6</b>	<b>1,3</b>
KPI Landutako elikagaiak (%13,4)	1,2	0,7	3,3	4,2	3,4	0,5
KPI Industriako ondasunak (%28,4)	-0,9	-0,2	1,1	1,1	0,3	0,1
KPI Zerbitzuak (%41,7)	2,5	1,4	1,9	2,3	1,8	0,7
<b>Hondarreko inflazioa (%16,5)</b>	<b>-3,6</b>	<b>6,6</b>	<b>11,1</b>	<b>9,8</b>	<b>9,2</b>	<b>1,5</b>
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,8)	0,2	0,2	2,3	1,7	1,3	0,1
KPI Energia (%9,7)	-7,3	11,5	17,7	15,6	15,0	1,4

Iturria: INE.

Azpiko inflazioa osatzen duten talde guztiek bat egin dute moteltzeko joera horrekin. Esate baterako, elikagai landuek %3,4ra gutxitu zuten beren tasa, tabakoaren igoera desagertzen ari zen heinean. Zerbitzuek, berriz, %1,8ko igoera izan zuten, historikoki moteltzeko joerari aurre egin badiote ere. Azkenik, industriako salneurriak %0,3 baino ez ziren garestitu azken hamabi hilekoetan.

Indize orokorraren beste osagai handiak, hots, hondar inflazioa delakoak, sei hamarrenetan gutxitu zuen bere urte arteko tasa, bigarren hiruhilabeteko %9,8tik abuztuko %9,2ra. Adierazle horren bi osagaiek gutxitu zituzten beren gehikuntzak, baina bakoitzaren egoera oso ezberdina da. Hain zuzen ere, landu gabeko elikagaiek %1,3 igo zituzten beren prezioak, baina energiaren taldeak %15,0ko urte arteko igoera jaso zuen.

Inflazioa ekoizkin taldeka aztertzen denean, baieztatuta geratzen da azken hilabeteetan inflazio tasa altuenak izan dituzten taldeak energiako salneurriek gehien kaltetu dituztenak izan direla. Izan ere, hala etxebizitza, berogailurako gasolioaren salneurriaren bilakaeragatik, nola garraioa, erregaien balio altuengatik, izan ziren urte arteko tasa altuenak jaso zituztenak. Bi horiei gehitu zitzaizkien edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituen taldea, gehikuntza tasa garrantzitsuak erakutsi baitzituen, nahiz eta aurreko hilabeteetakoak baino txikiagoa izan, tabako enpresa nagusien artean ireki zen prezio gudaren ondorioz.

### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2009	2010	2010		2011		
			III	IV	I	II	Abuztua
<b>Indize orokorra</b>	<b>0,3</b>	<b>1,7</b>	<b>1,9</b>	<b>2,4</b>	<b>3,4</b>	<b>3,4</b>	<b>2,8</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,1	-0,7	-0,2	0,3	1,4	2,4	2,3
Edari alkoholodunak eta tabakoa	8,4	10,7	8,7	10,4	14,6	10,6	5,0
Jantziak eta oinetakoak	-1,4	-0,2	0,0	0,4	0,3	0,5	-0,1
Etxebizitza	1,9	3,1	3,9	5,0	7,8	8,4	8,1
Etxeko hornidura	1,8	0,9	0,8	1,4	1,9	1,7	0,9
Medikuntza	-0,2	-0,1	0,3	-0,3	-0,2	0,0	-0,7
Garraioa	-5,3	6,5	5,7	7,3	9,2	8,1	7,2
Komunikazioak	-0,6	-0,7	-0,5	-0,7	-0,7	0,3	-1,2
Aisia eta kultura	0,3	-0,9	-0,3	-0,2	0,0	0,4	0,4
Irakaskuntza	4,2	2,2	2,1	2,4	1,7	1,1	1,1
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	2,4	1,7	1,8	2,1	2,1	2,0	1,5
Besteak	2,5	2,1	2,4	2,7	3,1	2,9	2,5

Iturria: INE.

Aitzitik, bigarren hiruhilekoan aldakuntza tasa negatiboak jaso zuen talderik ez bazen egon, abuztuan komunikazioek (%-1,2), medikuntzak (%-0,7) eta jantziak eta oinetakoak (%-0,1) urte arteko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren, telefoniako zerbitzuen prezioek izan zuten jaitsierarengatik, botiken gastuan bideratzen ari den arrazionalizazioarengatik eta beherapen garrantzitsuengatik.

Industriako prezioen indizeak, berriz, puntu bat eta lau hamarreneko moteltzea jaso zuen aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean (%9,2tik %7,8ra), eta moteltzeko joerari jarraipena eman zion ondorengo hilabeteetan ere, indize orokorraren urte arteko tasa abuztuan %7,2an kokatu arte. Beste behin, hala prezioen gehikuntza bizia nola ondoren adierazle horrek ezagutu duen apaltzea oso lotuta egon dira lehengaiak, bereziki petrolioak, nazioarteko merkatuetan izan duten salneurrien bilakaerari.

#### EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010		2011		Abuztua
			III	IV	I	II	
Indize orokorra	-6,0	3,3	4,2	5,2	9,2	7,8	7,2
Kontsumoko ondasunak	0,5	0,2	0,7	1,4	2,7	2,6	2,2
- Kontsumo iraunkorrak	0,2	-0,5	0,0	-0,2	0,5	0,4	0,6
- Kontsumo iragankorrak	0,6	0,5	1,0	2,0	3,6	3,5	2,9
Ekipamendurako ondasunak	1,3	0,1	0,2	0,6	2,0	1,9	2,1
Bitarteko ondasunak	-7,9	3,1	5,2	6,4	8,9	7,2	5,7
Energia	-14,6	11,7	10,3	11,2	23,8	20,4	20,4

Iturria: Eustat.

Horiek horrela izanda, energiako atalak oraindik %20tik gorako garestitzea jaso du oraindik eta bitarteko ondasunek, industriako lehengaien salneurriek baldintzatuta, nabarmen apaldu zituzten beren prezioen gehikuntza, baina abuztuan %5,7an zeuden oraindik. Aitzitik, gainontzeko taldeek askoz ere bilakaera motelagoa erakutsi zuten. Hain zuzen ere, ekipamendurako ondasunak %2,1 garestitu ziren abuztuan, urte osoan zehar jaso duten balioetatik oso hurbil dagoelarik, ondasun mota horren ekoizpenak gorakada garrantzitsua izan duen arren. Azkenik, kontsumoko ondasunek %2,2 igo zituzten beren prezioak, aurreko hilabeteetan baino gutxiago. Talde horren barruan, kontsumo iraunkorreko ondasunak oso gutxi garestitu dira, kontuan hartuta arlo horrek bizi dituen zailtasunak. Beste aldetik, kontsumo iragankorreko ondasunen prezioak %2,9 garestitu ziren urte arteko tasan.

### Lan kostuak eta soldatak

Azken hiruhilekoetan, ekonomiaren krisi egoerak eta lan merkatuak izan duen okertzeak, enplegu galera areagotu baitzen, lan kostuen adierazleetan jaitsierak eragin dituzte. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko lan kostuek dagoeneko bi hiruhilekoz jarraian urte arteko aldakuntza tasa negatiboak bildu dituzte, estatistika hori 2000. urtean egiten hasi zenetik jaso diren lehen jaitsierak baitira. Hain zuzen ere, aurtengo lehen hiruhilekoan kostu horiek %0,5 gutxitu baziren, bigarreanean jaitsiera %0,4 izan zen.

Estatistika horren azken emaitza guztiz baldintzatuta dago langile publikoen soldatetan egin zen murrizketarengatik, zerbitzuen arlokoak baitira. Aitzitik, bai industrian bai eraikuntzan langile bakoitzeko kostuak guztira areagotu ziren, bi sektoreetan enplegua galdu zelako, iraiizpenaren kalte ordain handiagoak eraginez. Horren ondorioz, soldatakoak ez diren kostuak biltzen dituen osagaia soldatakoak baino nabarmen gehiago igo zen.

#### LAN KOSTUEN BILAKAERA LANGILE BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	2,8	1,4	1,5	2,2	0,4	-0,5	-0,4
- Soldata kostuak	2,8	2,0	2,7	2,4	1,0	0,1	-1,2
- Bestelako kostuak	2,8	-0,4	-2,0	1,4	-1,4	-2,4	1,9
Kostu osoa industrian	0,8	2,3	3,7	3,9	1,0	-0,8	3,2
Kostu osoa eraikuntzan	0,0	-0,3	-1,5	0,9	-1,6	3,6	1,8
Kostu osoa zerbitzuetan	4,5	1,4	1,3	1,6	0,4	-0,8	-1,8

Iturria: INE.

Lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuak, langile bakoitzeko lan kostuak bezala, balio negatibotan mantendu ziren, beste arrazoi batzuen artean, benetan lan egindako ordu kopurua %1,0 igo baitzen aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, nahiz eta aparteko orduak nabarmen gutxitu ziren. Langile bakoitzeko lan kostuetan gertatu zena ez bezala, benetan lan egindako ordu bakoitzeko kostuak industrian eta eraikuntzan ere murriztu ziren.

## LAN KOSTUEN BILAKAERA LAN ORDU BAKOITZEKO

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2010			2011	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	5,4	0,6	0,0	-0,2	1,0	-2,9	-1,4
- Soldata kostuak	5,5	1,2	1,2	0,1	1,6	-2,3	-2,2
- Bestelako kostuak	5,4	-1,1	-3,5	-0,9	-0,9	-4,8	0,9
Kostu osoa industrian	5,8	0,3	1,3	-0,5	0,1	-6,3	-1,8
Kostu osoa eraikuntzan	2,1	0,7	1,2	-0,6	-0,7	0,1	-1,4
Kostu osoa zerbitzuetan	6,3	0,6	-0,6	-0,3	1,4	-1,9	-1,2

Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerak, lan merkatua ahul egon arren eta inflazioak dagoeneko beheranzko bilakaera erakusten duen arren, balio altuetan mantendu ziren eta ekaina arteko batez besteko igoera %3,7 izan zen indarrean dauden hitzarmenetan. Hala ere, negoziazio kolektiboa aurrera joango den heinean nolabaiteko moteltzea gertatuko dela espero da. Izan ere, urtean zehar sinatutako hitzarmenek urte anitzeko hitzarmenek baino soldata igoera txikiagoa erabaki dute batez beste. Orobat, aurtengo negoziazio kolektiboa oso atzeratuta dago eta oso gutxi dira oraindik lan baldintzak adostuta dauzkaten langileak, gehienek aurreko urteetan sinatutako hitzarmenen eraginpean daudelarik. Beste aldetik, enpresako hitzarmenek %3,1eko gehikuntza adostu zuten batez beste, sektoreko hitzarmenek %3,8ko igoera erabaki zuten bitartean.

## HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2007	2008	2009	2010	2011(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,2	5,0	2,7	1,9	3,7
- Urtean zehar sinatutakoak	4,1	4,8	2,8	1,7	3,4
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,2	5,2	2,8	1,7	3,8
- Enpresako hitzarmenak	4,2	4,1	2,6	2,4	3,1

(\*)2011ko ekaina arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

### Arlo publikoa

Ekaina arte, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen eragiketek irudi hobea eskaintzen dute aurten iaz baino. Hain zuzen ere, diru sarrera arruntak %13,2 gehitu ziren eta gastu arruntak, berriz, %4,5 areagotu ziren. Bi bilakaera horien ondorioz, lehen seihilekoaren aurrezki gordina 265 milioi eurotan kokatu da. Emaitza hori eta 2010eko epealdi berean lortutakoa oso ezberdinak dira, garai hartan 75 milioi euroko aurrezki negatiboa jaso baitzen. Kapitaleko diru sarrerak eta gastuak ere kontuan hartzen badira, finantzazioko beharra 42 milioi eurotik hurbil kokatzen da, 2010. urteko 368 milioien aldean.

Gastu arrunten artean, gehien hazi zen kapitulua finantza gastuena izan zen, aurreko urteko balioaren aldean halako zazpi hazi baita, zor biziaren eta interes tasen gehikuntzaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, gorakada hori oso garrantzitsua izan zen arren, gastuen guztizkoan oraindik pisu txikia daukate.

#### EUSKO JAURLARITZAKO AURREKONTUEN ERAGIKETA (2011ko urtariletik ekainera)

Mila eurotan

	2010	2011	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	3.936.824	4.455.663	13,2
2. GASTU ARRUNTAK	4.012.048	4.190.584	4,5
Langileen gastuak	969.809	936.835	-3,4
Funtzionamenduko gastuak	1.473.944	1.502.710	2,0
Finantza gastuak	7.097	53.267	650,6
Transferentzia arruntak	1.561.198	1.697.773	8,7
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	-75.224	265.078	-128,4
4. KAPITALEKO SARRERAK	19.427	7.237	-62,7
5. KAPITALEKO GASTUAK	312.710	314.309	0,5
Inbertsio errealak	71.089	48.127	-32,3
Kapitaleko transferentziak	241.621	266.182	10,2
6. FINANTZA AHALMENA (+) EDO BEHARRA (-) (3+4-5)	-368.507	-41.993	88,6

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Langileen gastuak izan ziren gutxiti ziren gastu arrunt bakarrak (%-3,4), kostuak gutxitzeko abiarazi ziren neurrien ondorioz (kontrol arauak, hutsik dauden lanpostuak betetzeko prozedurak, ordezkapenak eta aldi baterako kontratazioa). Aitzitik, funtzionamenduko gastuak

%2,0 igo ziren, konpromiso berriak gutxitzen ari diren arren. Azkenik, transferentzia arruntek gehikuntza garrantzitsua (%8,7) jaso zuten.

Itunpeko zergen bilakaerari dagokionez, hauek ez dira oraindik suspertu eta hazi gabe jarraitzen dute, ekonomiaren ahultasunaren ondorioz. Hain zuzen ere, zerga bidezko diru sarrerak %4,0 jaitsi ziren uztaile arte, baina ez da ahaztu behar 2010eko martxoan Rover kasuaren ondorioz lortu ziren, eta BEZ zergen eragina izan zuten, aparteko sarrerek baldintzatzen dituztela datu horiek. Aparteko sarrera hori zuzentzen bada, urte arteko tasa positiboa da.

Zerga zuzenak dira txanponaren aurkia, uztaile arte zerga horien diru bilketa %7,9 areagotu zelako. Bloke horretako zerga nagusiak, hots, PFEZ zergak, diru bilketaren erritmoa bizkortzen jarraitu zuen eta %11,3ko aldakuntza tasa lortu zuen. Bilakaera positibo hori bereziki 2010eko diru sarrerak ziren baina 2011n aitortu diren itzulketak txikiagoak izateak ahalbidetu zuen. Orobat, gehikuntza garrantzitsua (%5,0) hauteman da lanaren etekinen atxikipenetan.

Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak, hobekuntza erakutsi bazuen ere, ezin izan zituen balio negatiboak atzean utzi (%-3,0). Hala ere, zerga horren zati handiena abuztuan kitatzen da. Beraz, uztaile arteko datuekin bakarrik ezin da zehaztasunez aztertu zergaren bilakaera 2011. urtean.

Txanponaren ifrentzua zeharkako zergetan dago, oro har, %10,0 murriztu baitzuten beren diru bilketa. Sarreraren jaitsiera horren erantzule nagusia BEZ zerga da, bertan kudeatutako atalean, diru bilketa %13,0 gutxitu zuelako. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da emaitza hori guztiz baldintzatuta dagoela lehenago aipatua izan den Rover kasuko 2010eko sarrera apartekoarengatik, alderaketa termino homogeneotan egitea eragozten duena. Orobat, kasu horrek eragina izan du BEZaren doikuntzan ere, administrazioen artean egiten diren ordainketetan deskontuak egiten ari direlako.

Azkenik, zerga bereziek, hainbat hilabetetan balio negatibotan egon ondoren, 2010eko maila berean kokatzea lortu zuten, pisu handiena duen zergak, hots, hidrokarburoak zergapetzen duenak, diru bilketa areagotu zuelako. Dena dela, badirudi gorakada hori iragankorra izango dela, zerga horrek urtean zehar beherakada garrantzitsuak erakutsi zituelako, erregaien kontsumoak izan zuen moteltzearekin bat eginda. Munta txikiagoko beste zeharkako zerga batzuek, hala nola ondare eskualdatzeen zergak eta egintza juridiko dokumentatuenak jaitsiera biziak jaso zituzten aurtengo lehen zazpi hilekoetan.

## ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2011ko urtarrietik uztaiera)

Mila euro


ZERGAK	Diru bilketa			
	2010	2011	Aurrekon. %	11/10 aldak. %
PFEZ	1.745.207	1.942.217	45,7	11,3
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	2.270.002	2.384.418	53,4	5,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	137.019	113.349	48,5	-17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	42.839	44.469	50,8	3,8
- Ondare irabazien atxikipenak	10.234	8.229	43,5	-19,6
- Profesionalen eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	85.351	83.137	48,6	-2,6
- Kuota diferentzial garbia	-800.238	-691.385	96,0	13,6
Sozietateen gaineko zerga	222.095	215.405	20,6	-3,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	137.019	113.349	48,5	-17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	42.839	44.469	50,8	3,8
- Ondare irabazien atxikipenak	10.234	8.229	43,5	-19,6
- Kuota diferentzial garbia	32.003	49.358	7,0	54,2
Zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	71.497	40.515	34,4	-43,3
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	40.141	45.849	56,4	14,2
Ondarearen gaineko zerga	1.965	1.877	66,6	-4,5
<b>ZUZENAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>2.080.906</b>	<b>2.245.863</b>	<b>40,8</b>	<b>7,9</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	1.846.832	1.607.050	41,0	-13,0
Ondare eskualdaketen gaineko zerga	87.039	62.167	37,7	-28,6
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	50.113	34.750	37,4	-30,7
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	23.155	15.460	37,8	-33,2
Fabrikazio zerga berezia. Bertoko kudeaketa	789.181	789.840	47,9	0,0
Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gainekoa	24.758	24.589	45,5	-0,7
Aseguru sarien gaineko zerga	40.749	41.057	50,5	0,8
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>2.861.828</b>	<b>2.574.912</b>	<b>42,9</b>	<b>-10,0</b>
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>57.061</b>	<b>57.835</b>	<b>52,9</b>	<b>1,4</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK</b>	<b>4.999.795</b>	<b>4.878.611</b>	<b>42,0</b>	<b>-2,4</b>
BEZaren doikuntza	482.895	367.140	35,5	-24,0
Zerga berezien doikuntza	-100.147	-80.026	54,3	20,1
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>5.382.542</b>	<b>5.165.725</b>	<b>41,3</b>	<b>-4,0</b>

Iturria: Foru Aldundiak.

## Finantza arloa

2011ko bigarren hiruhilekoan, Europako zor subiranoko merkatuetan bizi ziren tentsioen gogortzeak finantza arloaren bilakaera baldintzatu zuen. Ziurgabetasuneko beste fase hori ez zen mugatu ezegonkortasun ekonomikoa pairatzen zuten herrialdeetara eta Euroguneko beste ekonomia batzuetara ere hedatu zen, arrisku sarien gorakada azkarra eta burtsa indizeen jaitsiera garrantzitsuak eraginez. Ezegonkortasuneko aldi horrek truke tasen merkatuak ere kaltetu zituen.

### Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

2011ko bigarren hiruhilekoan, ordainketei aurre egiteko Greziak erakutsi zuen ezintasunak ziurgabetasuna areagotu zuen Eurogune osoan zehar, eta bereziki Italiari eta Espainiari egin zien kalte. Izan ere, bi herrialde horietan hamar urterako zor publikoaren gainkostua Alemaniako zorrarekiko 250 eta 190 oinarri puntura (op) iritsi zen, hurrenez hurren. Uztailaren amaieran, Euroguneke Estatu eta Gobernu buruek Greziarako beste programa bat abian jartzea erabaki zuten. Orobat, herrialde horren iraunkortasuna hobetzeko neurri sorta zabalago bat onartu zuten. Akordio horri esker, zailtasunak zituzten periferiako herrialdeen arrisku sariak jaitsi ziren.

Hala ere, aurkeztu ziren neurrien abiatzeaz eta egokitasunaz zeuden zalantzek eta krisia Euroguneke beste herrialde batzuetara hedatzeko beldur iraunkorrek mesfidantzako beste une bat eragin zuten, merkatuaren sentimenduaz jabetu zena eta arrisku sariak berriro igoarazi zituen. Greziaren diferentzialak 1.500 oinarri puntuak gainditu zituen, Espainiarena, berriz, 400 puntutik gora kokatu zen eta Italiarenak 330 puntuak gainditu zituen. Egoera horren larria izanda, EBZ esku-hartzera behartuta egon zen eta Espainiako eta Italiako zor publikoa erosi zuen. Neurri horri esker, zor subiranoetako merkatuetan zeuden tentsioak neurri batean baretu ziren, nahiz eta oraindik balio altuetan jarraitu zuten.

EBZk, inflazioaren arriskuez kezkatuta, erreferentzia tasa 25 op igotzea erabaki zuen eta %1,5ean kokatu. Ekonomiaren moteltzeak pentsarazten du moneta agintaritzaren hurrengo mugimenduak beheranzkoak izango direla. Beste aldetik, likidezia mugagabeko enkanteak gutxienez 2012ko urtarrila arte luzatu zituen, eta hazkundera sustatzeko ezohiko egitasmo batzuk berriro martxan jarriko zituela iragarri zuen. Erreserba Federalak, Japoniako Bankuak eta Ingalaterrako Bankuak, berriz, hazkunde txikiagoko eta langabezia tasen jaitsiera arineko testuinguru horretan, erreferentzia tasak bere horretan uztea erabaki zuten.


Garapen bidean dauden herrialdeak fase aurreratuago batean daude ekonomiaren zikloan eta, horren ondorioz, moneta politika murriztaileagoa behar zuten. Izan ere, herrialde horietako banku zentralek hainbat hilabete daramate moneta eta finantza politikak gogortzen, inflazioaren presioak geldiarazteko eta kredituaren gehiegizko hazkundera leuntzeko. Testuinguru horretan, Txinak interes tasen bosgarren igoera zortzi hilabetetan erabaki zuen, %6,56 arte, eta bankuei eskatzen dien erreserba ratioa igo zuen. Indiak, berriz, %8,25ean kokatu zuen bere esku-hartzeko tasa.

Denboraldi batez euroak balioa irabazi ondoren, dolarrarekiko truke tasa oso azkar ahuldu zen irailan eta 1,38 dolarretan kotizatzerara iritsi zen hilabete horretan. Zeinu aldaketa horren atzean, Greziako zorraren krisiak okerrera egin izana eta beste herrialde batzuetara hedatzeko beldurra daude.


Eurogunearen ezegonkortasunak eta AEBetako desorekek inbertitzaileek dibisa seguruagoak bilatzea eragin zuten. Horren ondorioz, uztailean eta abuztuan yena eta Suitzako frankoa babes-diru nagusiak izan ziren eta balioa nabarmen handitu zuten. Bi diru horien garestitzearen aurrean, herrialde horietako gobernuek neurriak hartu behar izan zituzten bi dibisen balioa jaisteko. Hain zuzen ere, Suitzako Banku Nazionalak bankuen arteko interes tasa %0tik %0,25era bitarteko urkila batera jaitsi zuen eta euro baten truke 1,20 franko ordaintzea lortu zuen irailean, abuztuan 1,12 franko ordaindu zirenean. Japoniako gobernua, berriz, bere dibisaren balioa gutxitzea ahalegindu zuen, yena kopuru handiz salduz. Hala ere, balioa galdu beharrean, yena goranzko bideari jarraitu zion eta irailean truke tasa 105,75 yenetan zegoen euro bakoitzeko, 2001eko amaieratik inoiz izan duen baliorik garestiena.

**Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak**  
 Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.


Albiste negatiboek eta arriskurik ez hartzeko nahia zabaldu izanak errenta aldakorrek merkatuak baldintzatu zituzten, muturreko gorabeherak eraginez eta arrisku gutxiago duten aktiboak eskatuz, hala nola urrea, kalifikazio ona duten enpresa bonuak eta Alemaniako zor publikoa. AEBetako zorraren kalifikazioa jaitsi izana, Grezia laguntzeko eta gainontzeko herrialdeen kutsatzea eragozteko akordioa edo EBZk zor publikoa erosteko programa indartzeko erabakia izan ziren burtsak gehien astindu zituzten gertakariak, baina argitaratu zen datu ekonomiko bakoitzak mugimendu bat sortu zuen.

Horiek horrela, Europako eta AEBetako burtsa indize nagusi guztiek oso beherakada garrantzitsuak pairatu zituzten, eta urteko baliorik txikiena jaso zuten une batzuetan (europar indize gehienek %15etik gorako jaitsierak pilatu dituzte urte hasieratik). Zehazkiago adierazita, Espainiako burtsa 8.000 puntuetatik behera jaitsi zen abuztuan, eta 2007ko maximoetatik bere balioaren erdia galdu zuen. AEBetako Dow-Jones indizeak, berriz, %5,4 egin zuen behera. Garapen bidean dauden herrialdeetako burtsek ere beheranzko joera erakutsi zuten, moneta eta aurrekontu politikak gogortu zirelako.


Bankuen arteko interes tasek, EBZren igoerek bultzatuta, 2010ean hasitako goranzko joerari eutsi zioten uztaila arte. Hiru hilabeteko eta urtebeterako euriborrak, hurrenez hurren, %1,6an eta %2,1an kokatu ziren, biak urte hasierako mailan baino 60 oinarri puntu gorago. Hala eta guztiz ere, abuztutik aurrera, munduko hazkundera apaldu zen neurrian, beheranzko bilakaera hartu zuten eta biak gutxitu ziren.

### Interes tasen bilakaera %

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra




Iturria: Espainiako Bankua.

Espainiako Bankuak bankuetako maileguez egiten duen inkestaren arabera, finantzaziorako eskaria modu neurritsuan igo zen enpresetan eta berriro jaitsi zen familietan. Beraz, arlo pribatuak guztira egin zuen funtsen eskaria berriro gutxitu zen aurtengo apiriletik ekainera bitarteko epealdian. Familiei dagokienez, finantza erakundeek mailegu berriak onartzeko irizpideak zertxobait gogortu zituzten eta kostuak igo zituzten (hipotekako eragiketa berrien interes tasak lehen hiruhilabeteko %3,04tik bigarreneko %3,43ra igo zen). Horretaz gain, etxebizitzaren merkatuaren igurikimenek okerrera egin zuten, kontsumitzaileek konfiantza galdu zuten eta ondasun iraunkorretan eginiko gastua murriztu zen. Aurreko guztiaren ondorioz, hipoteketarako eta kontsumorako kredituen eskaria nabarmen jaitsi zen. Aitzitik, enprezentzako finantzazioa areagotu zen, baina modu ahulean. Hori dela eta, kreditu pribatuek, oro har, nolabaiteko hobekuntza jaso zuten aurreko hiruhilekoaren aldean eta %0,4 jaitsi ziren, aurtengo lehen hilabeteetan baino hamarren bat gutxiago.


Jaitsiera txikiago horren ondorioz, arlo pribatuaren zorpetze maila 1.226,7 milioi eurotan areagotu zen aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean. Zorraren igoerarekin bat eginez, berankortasuna %3,68ra igo zen. 2010eko azken hilekoetan ordaindu gabekoek moteltzeko joera leuna izan bazuten ere, harez geroztik bizkortzeko joera garbia erakutsi dute. Izan ere, urtea hasi zenetik tasa hori 0,6 puntuz igo da, 2010. urte osoan gehitu zena baino askoz ere gehiago delarik. Hala ere, oraingoz maila hori ez da kezagarria sistemaren kaudimenerako, oraindik nahiko apala delako.

#### Kreditu eta gordailuen bilakaera EAEn Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Banku pasiboen hazkundera berriro moteldu zen apiriletik ekainera bitartean, eta %0,6an kokatu zen. Gehikuntza tasa txikia izan zen arren, gordailu pribatuek 75.497 milioi euroak gainditzea ekarri zuen, serie osoaren kopururik gorena baita. Apaltzeko ibilbide hori bereziki nabarmena izan zen aurrezki gordailuetan, %11,2 gutxitu zirelako, eperako gordailuak bederatzi hamarren gutxiago hazi ziren bitartean, %2,0 arte. Beste behin, ekonomiaren balizko geldotzeak sortzen duen beldurra eta merkatuetako ezegonkortasunak EAEko eragileek likidezia nahiago dutela erakutsi zuten, eta sei hilabetez etengabeko beherakadak jaso ondoren, ageriko gordailuak %8,9 hazi ziren.

## EKONOMIA AURREIKUSPENAK

### Ingurunerako aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspenen arabera, munduko ekonomiaren hazkundeak oraindik desorekatuta jarraituko du 2011ko bigarren erdian eta 2012. urte osoan. Hain zuzen ere, ekonomia aurreratuek hazkunde ahula ezagutuko dute aurreikusi den epealdi osoan eta beren potentzialetik urrun mantenduko dira. Langabezia tasa altuak eta ekonomiaren gehikuntza apala izango dira herrialde horietako testuinguruaren ezaugarri behinenak. Hala Japoniak nola AEBek arazo askori aurre egin beharko dizkie epe laburrean. Eurogunea, berriz, epealdi gogorra dauka aurrean, hersturako neurri zorrotzengatik, beraien eragina gero eta argiagoa baita.

#### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
Munduko ekonomia	4,3	3,0	3,2	2,8	3,7	3,0
AEB	3,0	1,6	2,1	1,6	3,1	2,1
Kanada	3,2	2,3	2,1	1,8	2,8	2,0
Japonia	4,0	-0,5	2,4	-0,7	-0,2	-0,2
Eurogunea	1,7	1,7	1,0	1,6	2,6	1,8
Europar Batasuna	1,8	1,7	1,3	1,8	2,8	2,0
Alemania	3,7	2,9	1,3	1,1	2,3	1,9
Espainia	-0,1	0,7	0,8	1,8	3,1	1,7
Frantzia	1,4	1,7	1,2	1,5	2,0	1,7
Herbehereak	1,7	1,7	1,1	1,3	2,3	1,9
Italia	1,2	0,7	0,3	1,5	2,6	1,9
Erresuma Batua	1,4	1,2	1,8	3,3	4,4	2,7
Asia eta Ozeano Barea	7,0	4,6	5,4	2,6	3,5	2,8
Ekialdeko Europa	4,4	4,4	4,0	6,6	6,7	6,0
Amerika Latinoa	6,3	4,4	4,1	6,6	6,8	6,3

Iturria: Consensus Forecast (2011ko iraila).


Garapen bidean dauden eta azaleratzen ari diren ekonomiek, berriz, hazkunde tasa biziak lortuko dituzte eta oso bestelako testuinguru izango dute begi bistan, baina arazoak ere

edukiko dituzte. Ekonomia horiek gehiegizko berotzea, inflazioa eta truke tasaren balio irabaziak kontrolatu behar dituzte. Hain zuzen ere, kezka nagusietako bat elikagaien salneurrien bilakaera izango da. Edozein modutan, herrialde horietako egoera, hala aurrekontuei dagokienez nola finantza arloan, ekonomia aurreratuen baina askoz ere hobea da erronka horiei aurre egiteko.

## BPGren bilakaera eremuka


Urte arteko aldakuntza tasak

Eurogunea




2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

AEB




2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Japonia



2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012

Txina



2002 2003 2004 2005 2006 2007 2008 2009 2010 2011 2012


Iturria: NDF. 2011ko iraileko aurreikuspenak.

2011ko bigarren erdian eta 2012an garapen bidean dauden Asiako herrialdeek munduko ekonomia hazkundearen liderrak izango direla espero da. Ekonomia dinamikoak Txina eta


India izango dira berriro, eta bi horiekin batera Indonesia, Mexiko, Brasil, Taiwan eta Hego Korea agertuko dira. Herrialde atzeratuenak Japonia eta Eurogunea izango dira berriro. Hain zuzen ere, Consensus Forecast-eko taldearen arabera, munduko ekonomia %3,0aren inguruan haziko da 2011n eta %3,2 2012an. Beste aldetik, NDFren hazkunde aurreikuspena %4,0an kokatu da (erosteko ahalmenaren parekotasunean) epealdi horretarako.

#### Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Petrolioaren prezioen bilakaerak, egoitzetarako higiezinaren arloaren doikuntzak, finantza sistemaren osasunak eta administrazio publikoetako aurrekontuen kudeaketak AEBetako ekonomiaren etorkizuna baldintzatuko dute datozen urteetan. Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde guztiek oso beherantz zuzendu dituzte 2011 eta 2012 urteetarako hazkunde tasak. Esate baterako, NDFk %1,5 eta %1,8 iragarri ditu, hurrenez hurren, 2011rako eta 2012rako. Hazkunde ahul horri erantzuteko, moneta politikaren lehentasuna bertako ekonomiaren eta finantza arloaren erritmoa berreskuratzea izango da, eta inflazioan arriskuak daudela onartzen badira ere, interes tasen igoerarik ez da espero.

Japoniak bazeuzkan arazo handiak 2011ko martxoan natur hondamendiak herrialdea kolpatu zuenerako. Tsunamiaz gain, zorpetze publikoaren tasa altuak, deflazioa, bertako diruaren gehiegizko balioa eta ezegonkortasun politikoa ere aipatu behar dira, eta alderdi horiek guztiek zalantzan jartzen dute epe laburreko etorkizuna. Berreraikitze lanek ekonomia sustatuko dute 2011ko gainontzeko hilabeteetan eta 2012. urtean. Japoniako ekonomia %0,5aren inguruan

jaitsiko dela 2011n aurreikusten da, eta 2012n nabarmen areagotuko du gehikuntza tasa, %2,4 arte (Consensus Forecasts) edo %2,3 arte (NDF).

Txinako ekonomiaren hazkundeaz egin diren aurreikuspenak oraindik bikainak dira eta NDFren ustez %9,5 eta %9,0 haziko da, hurrenez hurren, 2011n eta 2012an. Hala eta guztiz ere, ekonomia horrek ere bere kezkak ditu, hala nola gehiegizko berotzea, inflazioa eta aktiboen burbuilek ekonomia errealean sor ditzaketen eragin kaltegarriak. Indiako ekonomiak ere hazkunde bizia lortuko du 2011-2012 biurtekoan, %7,5aren ingurukoa. Esportazioak eta zuzeneko inbertsioa sendotuko dira epealdi horretan eta bai kontsumo pribatua bai azpiegituretan eginiko gastu publikoa erabakigarriak izango dira hazkunderan. Indiak aurre egin behar dio azalerraten ari den edozein ekonomiak duen inflazio tasarik altuenari. Hori dela eta, Indiako banku zentralak interes tasak igo beharko ditu.

Euroguneko ekonomia nagusien kezka nagusia 2011n eta 2012an zor subiranoaren krisia eta gobernuek ezarri dituzten hersturako neurri zorrotzek ekonomiaren hazkunderan edukiko duten eragina dira. Eragin horiek biziagoak izango dira periferiako ekonomietan, defizit publikoaren arazoak larriagoak direlako. Hala ere, Euroguneko ekonomiaren susperraldia ez da %2,0ra iritsiko 2011. urtean eta 2012an moteltzeko joera arina aurreikusten da, hazkunde tasa %1,0aren inguruan kokatuko duena. Laburbilduz, ez dirudi etorkizun hurbila oso itxaropentsua denik moneta batasunean parte hartzen duten Europako ekonomia gehienentzat, salbuespenak Alemania eta Frantzia direlarik.

Alemaniarri mesedea egingo dio garapen bidean dauden Brasil eta Turkia bezalako herrialdeetako merkatuen eskariak, 2011ko eta 2012ko alemaniar esportazioak sendotzea ahalbidetuko duelako. Hain zuzen ere, Alemania %3,0aren inguru haziko da 2011n, baina 2012an %1,5etik hurbil egongo den tasa bat lortuko du. Frantziako ekonomiaren hazkundera, berriz, familien kontsumoaren igoeran eta lan merkatuaren egoeran oinarrituko da. Gaur eguneko aurreikuspenek %2,0aren eta %1,5aren inguruko tasak estimatzen dituzte, hurrenez hurren, 2011rako eta 2012rako. Dena dela, Europako zorraren krisiaren bilakaerak eta, oro har, europar herrialde guztietarako ezarri diren gastu publikoa murrizteko neurriek aurreikuspen horiek osorik baldintzatuko dituzte.

Espainiak aurre egin beharko die hazkunde txikiko hileko batzuei. Halaber, langabezia tasa altuena duen Europako herrialdea da. Lan merkatuaren narriadurak, produktibitatearen hazkunde apalak, eraikuntzaren doikuntza amaiezinak eta banku sistemak jarduera adar horren aktiboak pilatu izanak ziurgabetasun handiko etorkizuna marrazten dute. Aurreko guztiari gehitu behar zaizkio zor subiranotik eratorritzen diren arazoak eta kontu publikoen defizita konpontzeko bideratu diren hersturako neurriak. Osagai horiekin guztiekin ezin da hazkunde

tasa alturik espero datozen urteetan. Zehazkiago, 2011rako aurreikuspenak Ceprederen %0,6aren, Consensus Forecasts eta Funcasen %0,7aren eta NDFren %0,8aren artean mugitzen dira. 2012. urterako aurreikuspenak %0,8aren eta %1,1aren artean kokatzen dira.

**ESPANIAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2011ko iraila)**

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inbert. ekipoan eta bestean	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
AFI	0,8	0,9	0,5	0,9	-0,7	-2,0	-5,2	-0,5	-8,4	-3,1	-0,1	3,3
BBVA	0,8	1,0	0,4	0,5	-0,2	-2,2	-5,1	-0,5	-8,6	-3,0	0,1	3,8
Bankia	0,7	1,0	0,5	0,7	-0,4	-1,8	-4,9	-0,6	-8,1	-2,6	-0,2	1,2
Catalunyacaixa	0,8	1,1	0,6	1,1	-0,2	-0,9	-4,4	1,2	-8,0	-0,9	-0,4	2,4
Cemex	0,7	0,9	0,6	0,9	-1,2	-1,9	-5,2	-1,1	-8,2	-4,6	-0,8	2,5
CEEM-URJC	0,7	1,1	0,5	1,0	-1,0	-0,8	-2,6	0,7	-6,0	-2,0	2,8	3,8
CEPREDE-UAM	0,6	0,9	0,4	0,9	-1,2	-0,9	-4,5	2,1	-7,8	0,2	0,3	5,1
CEOE	0,7	0,7	0,5	0,8	-0,6	-2,0	-5,6	-1,9	-8,9	-4,7	-0,7	1,9
Esade	0,7	0,9	1,0	1,0	-1,0	-1,0	-2,0	-1,0	---	---	---	---
FUNCAS	0,7	1,0	0,6	1,1	-1,0	-2,4	-5,4	-1,7	-8,6	-4,9	-0,5	2,1
ICAE-UCM	0,7	---	1,0	---	-1,2	---	-2,9	---	-7,1	---	2,6	---
IEE	0,7	---	0,6	---	-1,0	---	-5,1	---	-8,5	---	0,5	---
IFL-UC3M	0,9	1,3	0,5	1,3	0,2	-0,6	-5,4	-0,1	-8,5	-2,2	0,6	6,0
Intermoney	0,8	1,0	0,6	0,8	0,0	-1,7	-5,0	-0,2	-8,0	-2,1	-0,4	0,1
La Caixa	0,8	1,1	0,7	0,7	-0,3	-2,4	-5,0	0,1	-8,2	-1,9	0,6	4,3
Repsol	0,7	1,0	0,7	0,7	-0,9	-2,6	-5,1	-0,6	-7,9	-1,2	-0,3	1,1
Santander	0,7	0,9	0,5	0,7	-0,7	-0,9	-3,9	-0,3	-7,0	-2,7	2,0	3,2
Solchaga Recio	0,8	1,1	0,7	1,2	-1,3	-2,5	-5,2	-1,8	-8,9	-5,0	-0,2	2,0
<b>Batez bestea</b>	<b>0,7</b>	<b>1,0</b>	<b>0,6</b>	<b>0,9</b>	<b>-0,7</b>	<b>-1,7</b>	<b>-4,6</b>	<b>-0,4</b>	<b>-8,0</b>	<b>-2,7</b>	<b>0,3</b>	<b>2,8</b>
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	1,3	2,3	0,9	1,4	-1,3	-0,8	-1,3	2,7	-4,7	0,7	3,2	5,2
Esp. Bankua (2011-03)	0,8	1,5	0,7	1,0	-1,1	-0,9	-3,1	3,6	-7,5	1,3	2,9	6,7
E. Batzord. (2011-05)	0,8	1,5	0,8	1,1	-1,4	-0,3	-3,4	1,8	-7,4	0,2	3,1	4,4
NDF (2011-09)	0,8	1,1	0,8	1,4	-1,2	-0,8	-5,1	-0,9	---	---	---	---
ELGE (2011-05)	0,9	1,6	0,4	1,6	-1,7	-1,3	-3,4	2,0	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

## ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2011ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
AFI	-1,1	0,0	7,7	4,7	0,5	1,6	3,1	1,6	-1,1	-0,1	21,1	21,3
BBVA	-1,0	-0,3	8,9	4,5	2,0	-0,3	3,0	1,2	-1,0	0,2	20,9	20,9
Bankia	-0,8	-0,1	8,9	6,2	2,5	2,6	3,1	2,2	-0,9	0,0	20,8	20,9
Catalunyacaixa	-0,8	0,6	7,7	3,1	1,8	1,7	3,2	1,5	---	---	20,8	20,8
Cemex	-1,1	-0,1	8,1	5,6	1,6	2,3	3,0	1,5	-0,8	-0,1	20,9	20,8
CEEM-URJC	-0,5	0,6	8,0	4,9	3,2	2,9	3,0	1,4	-0,1	0,6	20,2	19,9
CEPREDE-UAM	-0,9	0,8	8,1	4,4	1,6	3,7	3,7	2,6	-1,1	-0,1	21,0	21,3
CEOE	-1,1	-0,3	8,3	5,5	1,4	2,0	3,1	1,5	-1,1	-0,4	21,1	21,4
Esade	-0,1	0,2	4,0	4,0	0,5	1,0	---	1,7	---	---	20,0	20,0
FUNCAS	-0,9	-0,1	8,3	5,3	1,7	1,4	3,2	1,6	-1,0	-0,2	20,9	20,9
ICAE-UCM	-0,3	---	5,2	---	1,3	---	3,3	2,4	-0,3	---	20,4	---
IEE	-1,0	---	8,5	---	2,0	---	3,2	---	-1,0	---	20,8	---
IFL-UC3M	-0,8	0,7	9,2	4,7	2,8	2,2	3,2	1,6	-1,1	-0,3	21,0	21,1
Intermoney	-0,8	0,1	8,4	3,7	2,0	0,5	3,0	0,9	-0,9	0,0	20,8	20,8
La Caixa	-0,8	0,0	9,7	6,4	3,2	2,3	3,2	1,6	-0,9	0,3	20,8	20,7
Repsol	-0,9	0,0	8,5	5,1	2,2	1,3	3,1	1,6	-1,0	0,1	20,7	20,4
Santander	-0,7	0,2	7,8	5,3	2,3	2,6	3,1	1,8	-0,9	0,1	20,7	20,6
Solchaga Recio	-1,0	-0,1	8,5	5,5	1,8	1,6	3,2	1,7	-1,0	0,0	21,0	21,0
<b>Batez bestea</b>	<b>-0,8</b>	<b>0,1</b>	<b>8,0</b>	<b>4,9</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>	<b>3,2</b>	<b>1,7</b>	<b>-0,9</b>	<b>0,0</b>	<b>20,8</b>	<b>20,8</b>
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2011-04)	0,0	1,3	8,3	7,9	3,0	4,1	---	---	0,2	1,4	19,8	18,5
Esp. Bankua (2011-03)	---	---	8,0	6,1	2,7	4,9	2,9	1,5	-0,6	1,0	20,7	20,4
E. Batzord. (2011-05)	-0,6	1,0	7,0	5,8	1,7	3,8	3,0	1,4	-0,6	0,9	20,6	20,2
NDF (2011-09)	-0,9	0,5	8,7	3,0	2,1	0,8	2,9	1,5	-0,8	0,1	20,7	19,7
ELGE (2011-05)	-0,9	1,0	9,9	8,7	2,9	6,6	2,9	0,9	---	---	20,3	19,3

Iturria: Funcas.

Barne eskari ahularen aurrean, alderdi positibo bakarra kanpo arlotik iritsi daiteke. Esportazioen areagotzeak ekarpen garrantzitsua egin diezaioke ekonomiaren hazkundeari. Izan ere, barne eskariak hazkundeari egingo dion ekarpena beherantz zuzendu da eta kanpo arloaren ekarpen handiago batek konpentsatuko du, inportazioen aldakuntza tasa aurreko

estimazioetakoa baino txikiagoa izango delako. Ekonomia jardueraren narriadura 2012rako hazkunde aurreikuspenetan ere hauteman da, urte horretarako nazio eskariaren osagai guztiak beherantz zuzendu baitira.

#### HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2011ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	11.III	11.IV	2011	12.I	12.II	12.III	12.IV	2012
BPG	0,5	0,4	<b>0,6</b>	0,4	0,7	1,1	1,2	<b>0,9</b>
Kontsumo pribatua	0,6	0,6	<b>0,4</b>	0,7	0,8	1,1	1,1	<b>0,9</b>
Kontsumo publikoa	-3,0	-3,1	<b>-1,2</b>	-2,0	-1,1	-0,1	-0,4	<b>-0,9</b>
Kap. finkoaren eraketa gordina	-3,7	-1,6	<b>-4,5</b>	1,0	1,9	2,5	2,9	<b>2,1</b>
- Inbertsioa ekipamenduan	2,2	2,7	<b>0,3</b>	5,0	5,4	4,8	5,2	<b>5,1</b>
- Inbertsioa bestelakoetan	-1,5	-0,5	<b>-1,3</b>	1,4	2,1	4,0	5,0	<b>3,1</b>
- Inbertsioa eraikuntzan	-7,0	-4,0	<b>-7,8</b>	-1,1	0,1	0,9	1,1	<b>0,2</b>
Barne eskaria	-1,0	-0,4	<b>-0,9</b>	0,3	0,6	1,1	1,2	<b>0,8</b>
Esportazioak	6,7	5,5	<b>8,1</b>	3,9	4,4	4,6	4,7	<b>4,4</b>
Inportazioak	0,6	1,4	<b>1,6</b>	2,4	3,7	4,2	4,8	<b>3,7</b>

Iturria: CEPREDE.


Cepredek Espainiarako osatu duen taula makroekonomikoan enpleguaz bildu diren aurreikuspenak ere beherantz berrikusi dira eta %1,1eko jaitsiera iragartzen dute 2011rako eta %-0,1eko aldakuntza 2012rako. Langabezia tasari dagokionez, aurreikuspenek %20,8an kokatzen dute tasa hori 2011-2012 biurtekoan.

Nazioarteko ingurunearentzat eginiko eszenategi honen gainean arrisku asko daude. Alde batetik, finantza merkatuetako hauskortasuna ezin da ukatu, bereziki kapital merkatuak globalak direnean. Bai europar zorraren krisiak bai Ekialde Ertaineko matxinadek tentsio handiak eragin ditzakete munduko finantza merkatuetan. Beste aldetik, oraindik badaude kontsumo eta inbertsio eragiketak geldiarazten dituzten kreditu murrizketak. Balizko beste arrisku bat lehengaien eta elikagaien salneurrien bilakaera da. Aldagai horietako edozein aldakuntzak ekonomiaren hazkundera larriki kalte dezake.

Azken arrisku bat ekonomia eragileen konfiantzari dagokio. Hala kontsumitzaileek nola inbertitzaileek munduko ekonomiaren egoeraz, gobernuak hartutako neurri zorrotzez eta politikoek irtenbideen bilaketan eta errudunen bilaketan egiten dituzten eztabaidez albisteak

jasotzen dituzte etengabe. Egoera horrek gorabehera handiak ekartzen dizkie konfiantzako indizeei, une hauetan oso joera ezkorra markatuz.

### Ekonomia sentimenduaren indizea



Iturria: Europako Batzordea.

## EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak beherantz zuzendu ditu 2011 eta 2012 urteetarako egin zituen aurreikuspenak. Eustatek hiruhilekako kontu ekonomikoetako serie historikoetan egin dituen zuzenketak eta ekonomia egoeraren okertzeak, koiunturako adierazleetan hauteman baita, aurreikuspenak eguneratzea eskatu dute. Azken datuen arabera, EAEko ekonomiak ahultasuneko zantzuak erakutsiko ditu 2011n eta 2012an, bi urteetan BPGren hazkunde tasa apalak izango direlarik eta langabezia tasek %10etik gora jarraituko dutelarik. Zehazkiago, EAEko ekonomia 2011. urtean %0,8 haziko dela espero da, gero 2012an susperraldi txikia hasiko da eta urte arteko batez besteko tasa %1,4an kokatuko da.

Eskariaren ikuspegitik, barneko azken kontsumoa apalduko da 2011. urtean zehar eta bultzada arina lortuko du 2012an zehar. Familien kontsumoa ahulduko da kontsumitzaileek ekonomiaren egoera orokorrean konfiantza galdu dutelako eta, batez ere, lan merkatuaren egoera txarra delako, familiak gastua murriztera behartzen baititu. Beste aldetik, administrazio

publikoetako kontsumoa oso ahul aurreratuko da eta serie historikoaren tasa apalenetan kokatuko da. Bideratu diren hersturako neurriek hazkunde erritmoak ahulduko dituzte eta ekonomia eragileen etorkizunerako igurikimenak okerragotuko dituzte. Kapital eraketa gordinak azken urteetako beherakada erritmoa gutxitzen jarraituko du. Inbertsioak jaitsiera leuntzeko joera hartuko du eta hazkunde tasa positiboak jasoko ditu berriro aurreikusi den epealdiaren amaieran. Agregatu horren bultzagile nagusia ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izango da, eraikuntzan eginiko inbertsioak hazkunde globala lastatzen jarraituko duen bitartean. Banku sistemak emandako kredituen bilakaera oso garrantzitsua izango da inbertsioak gehikuntza sendoko bidea berreskura dezan.

#### EAE-KO EKONOMIAREN ZAKO AURREIKUSPENAK (2011ko iraila)


Urte arteko aldakuntza tasak								
	2011.III	2011.IV	2011	2012.I	2012.II	2012.III	2012.IV	2012
BPG	0,7	0,8	<b>0,8</b>	1,1	1,2	1,6	1,7	<b>1,4</b>
Azken kontsumoa	0,4	0,5	<b>0,6</b>	0,9	1,0	1,2	1,3	<b>1,1</b>
Kontsumo pribatua	0,3	0,5	<b>0,5</b>	0,9	0,9	1,1	1,2	<b>1,0</b>
Kontsumo publikoa	0,8	0,7	<b>1,0</b>	1,0	1,2	1,4	1,7	<b>1,3</b>
Kapital eraketa gordina	-1,0	-1,1	<b>-1,2</b>	-0,1	0,0	0,2	0,5	<b>0,2</b>
Barne eskariaren ekarpena	0,0	0,1	<b>0,1</b>	0,5	0,5	0,9	1,0	<b>0,7</b>
Kanpo saldoaren ekarpena	0,7	0,7	<b>0,7</b>	0,6	0,7	0,7	0,7	<b>0,7</b>
Lehen arloa	-15,5	-24,0	<b>-17,4</b>	-10,0	-17,3	2,8	1,8	<b>-5,7</b>
Industria	3,3	3,5	<b>3,4</b>	3,7	3,7	3,9	3,9	<b>3,8</b>
Eraikuntza	-5,2	-4,5	<b>-5,0</b>	-3,7	-3,0	-2,2	-1,8	<b>-2,7</b>
Zerbitzuak	0,9	0,9	<b>0,9</b>	1,0	1,1	1,3	1,4	<b>1,2</b>
Balio erantsi gordina	0,8	0,8	<b>0,9</b>	1,2	1,3	1,7	1,8	<b>1,5</b>
Ekoinzinen g. zerga garbiak	0,0	0,7	<b>0,1</b>	0,9	1,0	0,9	1,0	<b>0,9</b>
BPGren deflatoea	1,8	2,0	<b>1,8</b>	2,0	2,2	2,2	2,3	<b>2,2</b>
Enplegua	-0,7	-0,3	<b>-0,4</b>	-0,1	0,0	0,5	0,7	<b>0,3</b>
Langabezia tasa	11,1	11,1	<b>11,0</b>	11,3	11,3	10,7	10,0	<b>10,8</b>

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko barne eskariak ekarpen positibo txikia egingo dio BPGren hazkundeari 2011. urtean eta zertxobait handituko da 2012an. Kanpo eskariak, berriz, ekarpen positiboa eta egonkorra egingo du eta aurreikusi diren hiruhileko gehienetan barne eskariaren ekarpena baino handiagoa izango da. Nazioarteko ingurunearen eta barne eskariaren egoerak, ahultasuneko eta hazkunde zalantzatiko zantzuak erakutsiko dituen arren, esportazioen eta inportazioen igoera

ahalbidetuko dute. Igoera hori nahiko izango da EAEko ekonomiaren hazkunderari hainbat hamarren ekartzeko.

## EAEko BPGren eta enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren aldetik, bizitasun handiena erakutsiko duten arloak industria eta zerbitzuak izango dira, eraikuntzak beherakadak jasotzen jarraituko duen bitartean, nahiz eta jaitsiera horiek gero eta txikiagoak izango diren. Industria arloko adarrak dira susperraldi handiena lortu dutenak eta ekarpen garrantzitsua egingo diote EAEko balio erantsiaren hazkunderari, inguruneko ekonomien bultzada arinak lagunduta. Oso bestelakoa da eraikuntzaren egoera. Aurrekontuak murrizteko une hauetan, obra publikoak ezin izango du konpentsatu etxegintzaren narriadura handia. Azkenik, zerbitzuek hazkunde egonkorra eta etengabea jasoko dute 2011-2012 biurtekoan zehar.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginiko taula makroekonomikoak enpleguaren eta langabezia tasaren 2011rako eta 2012rako bilakaera ere hartzen ditu kontuan. Enpleguari dagokionez, aurreikuspenek adierazten dute batez besteko aldakuntza tasa %0,4 jaitsiko dela 2011n. Horrek esan nahi du 3.800 lanpostu galduko direla. 2012rako, enpleguen sorrera hirugarren hiruhilekoan hasiko da eta urte osorako batez besteko gehikuntza %0,3an kokatuko da, guztira 2.900 lanpostu sortuko direlarik. Langabezia tasari dagokionez, 2011.

urtean %11,0an kokatuko dela aurreikusten da eta hurrengo urtean zertxobait apalduko dela, %10,8an geratzeko.

EAEko ekonomiarako Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu dituen aurreikuspenak egiteko hainbat hipotesi egin dira aurreikusi den epealdian nazioarteko ekonomia ingurunerako hazkundeaz, datozen hiruhilekoetan egongo diren prezio mailaz, euroak dolarraren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak ezarriko dituen interes tasez.

#### KPI-REN AURREIKUSPENAK (2011ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011	12.I	12.II	12.III	12.IV	2012
AEB	2,1	3,5	3,8	3,7	<b>3,3</b>	2,9	2,0	1,8	1,5	<b>2,0</b>
Eurogunea	2,5	2,7	2,6	2,6	<b>2,6</b>	1,7	1,3	1,2	1,1	<b>1,3</b>
Espainia	3,5	3,5	3,1	2,6	<b>3,2</b>	1,6	1,4	1,4	1,5	<b>1,5</b>
EAE	3,4	3,4	2,9	2,6	<b>3,1</b>	2,0	1,7	1,8	1,7	<b>1,8</b>

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).

Duela hiru hileko interes tasen bilakaeraz egin ziren aurreikuspenetan ez bezala, gaur egun adituek uste dute Europako Banku Zentralak datozen hilekoetan interes tasak jaitsiko dituela eta, neurri horri esker, Europako ekonomien hazkunde ahula sustatzen ahaleginduko dela. Epe laburrean gutxienez 50 oinarri puntuko jaitsiera onartuko duela iragartzen da, baina murrizketaren tamaina datozen hilabeteetan ekonomiak izango duen bilakaerak baldintzatuko du. Ekonomiaren susperraldia ez dago errotuta eta Europako moneta agintaritzaren laguntza beharko da, EBZren politikan norabide aldaketa bat ezarriz.

Oraingo aurreikuspenak AEBetako dolarrarekiko oraindik balio handia duen euro batean oinarritu dira. Aurreikusi den epealdi osorako estimatu da euroa 1,42 dolarretan trukatu dela. Hala ere, aldagai horretarako errore marjina oso handia da, bereziki 2012. urterako. Euroguneko herrialde batzuetako zor subiranoaren krisiak eta interes tasen etorkizuneko joerak euroak beste dibisen aldean edukiko duen kotizazioa baldintzatu ditzakete.



